

GELU

GEUELKARTEAREN BABESAREKIN

GASTEIZ

Elkarrizketak

Julian Gorospe

Roberto Gutierrez

Alvaro Glez. de Galdeano

dabilen harria

RUPER ORDORIKA

Gasteizko Batzokian botatako bertsoak (1.909 urtea)

EGUNAREN BERTSOKIAZ ARAZATUTAKO GEU ELKARTEKO KIDEA

Honako bertso hauek 1909ko apirilaren 28koak dira. San Prudentzio egunez Gasteizko Batzokian, Centro Vasco deiturikoan botatakoak, hain zuzen. Bertsolariak, berriz, Leoncio Galdos eta Leandro Mendia jeltzale gasteiztarrek ditugu.

Egun horretan, jeltzale gasteiztarrek aurreko urteko urriaren 12an San Prudentzio kaleko 7. etxebizitzan ireki zuten Batzokiaren inaugurazioari ekin zioten. Batzoki hori Gasteizen ezagutu diren batzokietatik bigarrena izan zen. Lehena, Luis Eleizalde

euskaltzale eta abertzale finaren lehendakariitzapean Portal del Rey kaleko 2.ean irekitakoa. Ateak zabaldu eta bi hilabete eta erdira itxi zuen gobernadoreak 1908an Urte Berri egunez, Ramón Leniz bizkaitar sutuak bertan egindako hitzaldiagatik. Itxierarekin batera hainbat lagun atxilotu eta espetxeratu zituzten, euren artean Luis Arana Goiri eta, urte bete beranduago, bertotan arituko zen Galdos.

Honatx esandako bertsook, hitzez hitz emanda, (Datorren zenbakian gainontzekoak).

(1)
 Mendiarr (sic) Leanderr (sic)
 Lagun maitia,
 Mezedez (sic) ezkatzen (sic) dizut
 zutirik jartzia.
 Lau edo bost itzneurtu
 Emen esatia
 Uste dot dala
 Gauza egokia,
 Ortarako nai nuke
 Zuk laguntzia.

(2)
 Zure deia entzun da,
 Leontzi, jaiki naiz,
 Bañan itzneurlaria
 Iñoi izan ez naiz;
 Gañera ez det mintzatzen
 Ondo euzkeria (sic),
 Orregaitik nai nuke
 Barkatzia
 Nik egingo detan
 Itz neurtutzia.

(3)
 Arana-Goiri-tarr (sic) Sabin
 Gure maisuba,
 Zuretzat doa lenengo
 Itzneurtuba,
 Gaurr (sic) aberria dago
 Dana lotzatuba (sic)
 Euki zindualako
 Zorotzat artuba,
 Maitatzeagaitik
 Euzkadigaz Jaungoikuba.

(4)
 Osasuna ta aberaztazun (sic)
 Danak,
 Euzkadigaitik galdu ebazan
 Aranak,
 Jaungoikoana ekartzera
 Bere anai laztanak,
 Biurtu ebazan Sabinnek
 Bere lanak,
 Argaitik gaurr (sic) beregaz dauka
 Goiko-Jaunak.

(5)
 Arana-Goiri-tarr (sic)
 Koldobika jauna,
 Itzneurtu au biurtzen noa
 Zugana,
 Donetsua izan dedilla
 Zeru goiko Jauna
 Ekarrri zinduelako
 Geugana,
 Guziok oju egin dezagun
 Gora Arana!

(6)
 Zugaitik gaurr (sic) daukagu
 Batzoki ederra,
 Ta abertzaletasunak
 Artu dau indarra.
 Abertzale zintzoa
 Eta chit (sic) azkarra,
 Zuk aitu zenduan
 Aberriaren deadarra
 Ta piztu Euzkadintzat
 Biotzian garra.

Naturaren isladak

Ahate moko zabala (*Anas clypeata*)



071 Arabako Natur Institutua

Fundación Sancho el Sabio Fundación

CTL

Conrada Tejado

geu gasteiz berria, kolore guztia.

GEU GASTEIZ, Gasteizko
Eusko Jaurlaritzako hilebelataria

ERREDAKZIOA:

Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:

Estiberto Eneko Glez. de Zarate.

ERREDAKZIOBURUA:

Asier Dz. de Karloa.

ERREDAKZIOA:

Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arnaiz-Gil, Raul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZKIAK:

Ederla Sanz.

MAKETA:

Galzagain Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 18 46

INFOGRAFIA:

Alex Badillo.

KOMINIA:

Itziar Sarasola

NATURAREN ISLADAK:

Jose Antonio Gainzarain.

KOLABORATZAILEAK:

Pascual Garrote, Juanjo Perez, Igor
Elorza, Itziar Kaslesana.

PUBLIZITATEA:

Karlos Fdez. de Beloña.

BANAKETA ARDURADUNA:

Txipi Ormaetxea.

INPRIMATEGIA:

Gerlu Korp. E. (Zubillaga, Onati)

ALE KOPURUA:

2.500

LG: VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
ECOLOGICZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz hilebelataria
ez du bere gain hartzen
bertan adierazitakoen erantzunkizunik.



HAURRAK

Ruper Ordorika:
*bat-batekosunak
leku handia izan
du 'Dabilen
Harria' lanean*

iritziak

30 Juanjo Perez

Egoera berriak, proiektu berria behar du.

34 Pascual Garrote

Zer nolakoa da nire abstentzioa?

laburrak

5 Argazkilaritza

Geu gasteiz lehiaketako txapelduna.

7 Besteak

Annapurna, Juanitoren azkena.

elkarrizketak

22 Asier Sagasta

Oihulari Klown taldeko kide.

28 Roberto Gutierrez

AEK-ko arabako arduraduna,
AEK egunaz mintzo.

kirolak

27 Erreportaia

Euskaltel-Euskadi 1999

27 Botepronton:

Alvaro Glez. de Galdeano.

kultura

12 Musika

Ruper ordorika: Dabilen Harria
Kritikak: Iker Goenaga, Ruper
Ordorika.

20 Literatura

Patxi Salaberriren azken lana
Kritikak, Arriagaren eskutik.

29 Agenda

Azaro kultur ekitaldien zerrenda.

erreportaia

8 Gizartea

Hauteskundeak kameraren atzetik.
Hala Bedi, handituz doan irratia.

ohikoak

4 Santa Barbara azoka

Euskararen termometroa

32 Komikia

anunkibidea

Piti-Pata berritua,
handitua eta
hobetua.

17.
Orr.

ELKARRIZKETA



12.
Orr.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

bla bla bla

IVAP

HERRI ARDULARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA



HERRI ARDULARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

HELBIDEA: <http://www.ivap.org>

SORTZAILEA: Eusko Jaurlaritzaren

HAEEren informazioa Heskintzeaz gain (liburutegia, ikastaroak...) Duda-Muda Zerbitzura egin dezakezu jauzi web orrialde honetatik bertatik. Euskarazko testu bat idazten ari zarela eta zalantza bat duzula, jo ezazu hona eta argituko dizute: lexikoa, sintaxia, hiztegia... Publizitate eta bestelako kartelak argitaratu nahi dituenentzako ere baliagarria da. Ea Pizarro jauna nabigatzen jar-tzen dugun!

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postazi: **pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53**

SALTZEN DUT

Larruzko kazadora bat saltzen dut. Heavy edo punky batentzako aukerakoa. Talla 40, biern-bernia dago.

945 13 27 58 Espe
(9etatik 10 etara)

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, mende honetakoak eta nazio anitzekoak ere badauzkat.

945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarre-ran ipintzen den kristaltxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da.

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikorra daukat salgai. Ascorn Eliso (Artel). 19.000 pta. balio du eta nik 15.000 pta. salduko dizut.

945 22 73 03 Jabi

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai. Arabako Lasarte herria da. 108x87. Salneurria: 60.000.

945 22 73 03

Trono itxurako aukil handi bat daukat salgai, oso apro-posa adineko jendearentzat. Erosia: Salneurria: 12.000.

945 22 73 03

DEITZEN DIZUT

Oihiko osasun sistemari ase-tzen ez bazaituzte, zator. Sumendi osasunaren auto-gestioaren aldeko elkartera

945 22 65 03

Ez hago bakarrik! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzal-diak eta eztabaidak, psikolo-gi, sexologi eta lege aholku-laritza. Bilerak asteazkenero.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea. Hizkuntza txikiak maite ditul-gulako, esperantoz mintza-tzen gara.

Zapatari kalea, 29

ALOKATZEN DUT

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

EMATEN DIZUT

Altuberen Ederismos liburu-a dut emateko, bi ale ditut eta. Horrekin konforme ez baza-goz, patxaran kopatxo bat ere eskeiniko dizut.

945 13 27 58 Jose Luis

Geu Gasteiz aldizkaria.
Pedro Asua kalea, 2. 3.a
faxa: 22 21 53
geugaste@jrg.com

PREMIAZKO TELEFONOAK (BETI 945 AURRETIK)

S.O.S. DEIAK:	112	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALTAINGOAK:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHIULTZAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERIETXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hazkailuan

Ez galdetu nola heldu den gure-gana, baina eskutan daukun kar-telxo hau Txagorritxuko ospitale-an jarri ohi dituzten horietako bat da. Ikusten denez gaztelera hutsez ageri da. Zenbat eta zen-bat saio egin dira Osakidetza eus-kalduntzeko. Itxuraz, asteen behin prentsaurreko bat ematen duen azku-na jaunak ez omen du astirik holako gauzetan gastatzeko.

EL PASO DE PASADA ENTRE
PISOS 6 BLOQUEO DEL ASCENSOR
PULSE EL BOTON DE URGENCIA.
HAY PERSONAL ESPECIALIZADO
PARA DARLE PERMANENTE.



Ez dakigu horrekin konformatu edo gehi-ago exijitu behar diegun baina saltzaile batek publi-zitatea euskaraz agertzea erabakitzen duen bakoitzean poztzen gara. Askok eta askok sekula-ko akatsak egin ohi dituzte, baina borondatea eskertu beharrekoa da. Badira publizitatea egoki euskaratzeko bideak (gu laguntzeko prest), egi-ten diren hankasartzeak ekiditzeko. Nolanahi ere, irudikoak bezala euskararen aldeko apostua egiten duten guztiei, zorionak!

Txokolatezko etxetxoak / Asier Pz. de Karkamo

Ipuin ospetsuko txokolatezko etxetxoak eraiki zitekeen urrian ertzaintzak atzemandako txokolatearekin. Inoiz Gasteizen harrapaturiko haxix kopuru handiena izan zen. Txokolatez ez ezik kokaina, kalamua eta bestelako dro-gak atzeman zituen Ertzaintzak.



zenbait tabernetan ari ohi ziren detenituak drogak saltzen.

Bizitzako gertakari orok, baina, bi aurpegi erakusten dizkigu, baita kasu honetan ere. Batetik, polizi operazioan parte hartu zutenen aurpegi alaia. Bestetik, hiriko txokolatezaleen egoneza keinua. Ziur, horietako askok, apuroa kentzeko, zigarrorroxoren bat erreko zutela!

fotonotizia
bi hiriotako



HERRIKO TABERNA

JOSE URZUOLA
KALEAN

GASTEIZKO



IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Alberto Salazar Geu Gasteiz argazki lehiaketako irabazle

Alberto Salazar Laguardia 40 urteko laguna izan da aldizkariak udan antolaturiko argazki lehiaketako irabazle. Gogoratuko duzue, Geu Gasteizko ale bat oporretara eraman eta berauri argazki bat ateratzea nahikoa zen lehiaketan parte hartu ahal izateko. Horixe bera egin zuen Alberto Salazarrek, Greziako Santorini eta Delfos herrietan. Aldizkariako arduradunentzat irudiko argazkiok merezi izan dute lehiaketako lehen aldiko

saria. Zorionak, hortaz, Alberto. Albeniz jatetxeak opari digun bi pertsonentzako afariaz goza zaitezten espero dugu.



Aldizkaria atean eta altxorra izan ziren Alberto Salazarrek Grezian ateratako argazkiak

GEU Elkartearen Batzarra

Urtero bezala garai hauek heltzen direnean GEU Elkartek bere Batzar Orokorreko deia zabalitzen du. Aurten hilaren 18an izango da, arratsaldeko zazpitan. Aukeraturiko lekua Landatxo Gizarte Etxea izan da. Iaz egin zen aurreneko Batzar Orokorra Landatxon eta leku aproposa

delakoan, errepikatuko dute GEU Elkartekoek aurten. Aurtengo ekitaldien balantzea, datorren urtekoen prestakuntza eta euskararen inguruko hainbat gai izango dira, ohi bezala. GEU Elkartearen Batzar Orokorren puntuetako batzuk. Esan bezala, azaroaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, Landatxo Gizarte Etxean.

azaroa

GEUREKIN MENDIRA

Palomareseko gandorra

eguna

azaroaren 22an

irteera

9 t'erdietan Txapela

tabernan

Kotxez joango gara

GEUekin Mendira

GEU Elkartea eta

GEU GASTEIZ

aldizkariaren ekimen bat da

tfnoa.: 945 20 09 73 (Joseba)

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lenteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna.

Erabili... eta bota. Horren erraza.

Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.

6 LENTIXKETAKO KUTXATILA: BAKARRIK 6.000 PTA.



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Adi egon, badatorrela Kontseilua!

Adi egon, bai, sekulakoa montatuko baita! Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak gure hizkuntzaren aldeko izugarrizko kanpainari ekin dio: XXI. mendeko akordio: Bai euskarari.

Zuetako askok ez duzue Kontseilua zer den jakingo baina, egon lasai, datozen asteotan enteratuko baitzaret. Besteak beste, Abenduko alean erreportaia interesgarria argitaratuko du Geu Gasteiz aldizkariak Bai euskarari lelopeko kanpianaren inguruan. Nolanahi ere, lerrook aroketxa nahi ditugu Kontseiluaren inguruko aurreneko informazio baliagarri batzuk emateko.

Kontseiluan jatorri, iritzi eta lan-eremu desberdinetan ari diren euskararen gizarte erakunde anitz biltzen dira, batera aritzeko urrats historikoa eman dutenak. Osaera, eragimen eta antolaketa anitzekoak izanik, euskarak garapen osoa izatea helburu duten erakunde ugari osatzen dute Kontseilua.

Hona hemen zenbaki batzuk, Kontseiluaren indarra adierazten dutenak:

- 50 erakunde baino gehiago, horietako zenbait talde askoren bilgune direnak.
- 5.000 langiletik gora.
- 100.000 bazkide inguru.



- 50.000 milioi pezetako fakturazioa urtero.
- Ehundaka mila herritarrengan eragin zuzena.

Kontseiluaren eginkizuna

Euskararen normalizazio-prozesua areagotzea da Kontseiluaren eginkizuna. Horretarako bi jardunbide nagusi izango ditu: euskalgintzako erakundearen artean kohesioa bultzatu eta indarrak artikulatzea, eta gizartearen eragileak, indar ekonomikoak eta alderdi politikoak hizkuntz normalizazio-proiektuetan inplikatzeko.

Bai euskarari kanpaina urriaren 3an Zamudioko Parke Teknologikoan egin zen. Gizarteari begira, oster, Durangoko Azokan egingo da. Arlo eta bide ugari izango du eragin Kontseiluaren kanpaina honek. Nolabait, oihartzun handiena izango duena abenduan egingo da. Zertan datzan hurrengo zenbakian jakingo duzue, baina euskararen irrintzia Euskal Herri osoan entzungo dela aurreratuko dizuegu.

Herri komunikazioa aztergai

Euskal Herri osoko herri komunikabideak izango dituzte aztergai hilaren 27an eta 28an Arrasaten. ARKOK (Arrasate Komunikabideak) antolatutako eta Topaguneak (Euskara Elkarteen eta Herri Aldizkariaren Topagunea) babesturik, hedatuz doan gizarte fenomeno honen inguruan jardungo dira Herri Komunikabideei Buruzko III. Jardunaldien partehartzaileak.

Hizlarien artean bada euskararen munduan oso ezagunak direnak: Patxi Petirena, Euskaldunon Egunkariako euskara arduraduna, Luis Fernandez, Arregi

Kazetari-tza saria-
ren ira-
bazle,
I b o n
Saraso-
la, idaz-
le eta hiz-
kuntzalari,
eta beste hain-
bat gehiago.

Norbait interesaturik balego, hona hemen telefono zenbaki bat, informazio gehiago eskuratzeko baliagarria:

943 79 02 26



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZA HAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

hurrengo helburua Everestera oxigenorik gabe igotzea izango da.

**Baskoniak lesioekin jasaten ari
den kalbarioak baditu,
gezurra badirudien arren,
poztekoak ere ekartzen.**

**Hilaren 1ean taldeak
Badalonan jokaturako lehiari
Ortun gazteak debutatu zuen,
kanteraren alde apustu egiten
dugunon zoramenerako.**

Salbideatarrek zazpi txapela dagoeneko

Egunero komunikabikeetan agertzen ez diren arren, ehundaka kirolari ditugu Araban. Horietako askoren lana puntako kirolariena bezain ona da, baina ezaguna ez denez... Adibideak ugariak dira, esaterako, Salbidea anaiak. Zazpi aldiz Euskal Herriko trontzalaririk onenak suertatu dira. Noski, trontzan ez dago milioiak irabazterik, eta euren entrenamenduak lane-tik irtetzean izan ohi dira.

EUSKARRI BAZKIDE BILA
Euskarri Kirol Elkarteak,
(besteak beste Geu Gasteiz
aldizkariak eta GEU Elkarte-
ak bultzaturikoa)
bazkide kanpainak
ekingo dio laster.
Hasierako urte
aldapatsuen ostean
badirudi kirol elkarteak
gorpuztuta dagoela. Orain
ekonomikoa da Euskarriren
arazo larriena eta,
diru egoera hobetu
beharrean, bazkide
kanpainari ekingo dio.
Une honetan gizonezko bi
talde (saskibaloikoa eta
futbolekoa) eta
emakumezko beste bi
(saskibaloikoa eta
areto-futbolekoa)
ditu Euskarrik.
Nolanahi ere kopuru hau
handitzea da etorkizuneko
asmoetako bat, Ikastola eta
eskoletatik irteteen talderik
gabe geratzen diren
mutiko eta neskeei
euskaraz jokatzeko
segitzeko aukera
eman nahian.

HAUEK ERE BAL..



Abeltorio Edoar pikarino ALEX-ko irakatsia Alfores Gogoratu ezazu

...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
euskaltegi eta barnetegiari **aeK**


MERKURIO-KADMIOMOAN
 %0a

CEGASA PILAK
 INDARTSUENAK
 ETA
 EKOLOGISTENAK

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
 Artapadura, 11 - Apdo. 355
 Telef. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ESATEN NIZUEN, BADA, NIKI!

Inoiz baino politikoago aritu dira, azken hauteskundeetan, gure politika-emakume eta gizonak, keinuak eta ahots tonuak markatuz, ez bakarrik kanpainan, baita emaitzak jakin ostean ere.




BAZIHOALA EZ AL ZUTEN ESATEN? Kazetari eta argazkilariorik jasan behar izan duguna jakingo bazenute... bla, bla, bla, bla, bla...

AMAITU DA a, ze ajea!

HI JOSE MARI, ESNA HADI!

Euskal eta gure labelik gabeko politikoak aritu ziren kanpainan. Hemengoak hangoak baino animotsuago. Hala dirudi, behintzat, argazkiotan.



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ





EUSKARAOKEA Pantailatxoan ageri zaien kanta abesten dihardute Superbatpilabateko haurrek. Antzerako zer baitetan, maiz, gure politikoeek.

ETA ZAPATAK ZIKINDUKO BANITU?

A, zenbat saltsatan sartu zaizkigun: entpresetan, obretan, nekazal guneeetan, mendi tontorretan... Zaila izan zaie, noski, jantziarekin asmatzea.



DENA ESAN AL DUT?

Kanpaina amaigabea izan zen. Halere, esan beharreko guztia bota al ziguten? Auskalo!



LABUR, LABUR



AI ENE!

Gaizto ekin zion eguraldiak kanpainari. Gero lasaitu zitzaigun, baina zenbait irudi bitxi utzi zizkigun

ARDOA EGIN AURRETIK DASTATU NAHI

Emaitzak jakin aurretik irabazle ziren denak. Ez dakit zenbat bozka, auskalo zenbat jarleku... alderdi denak ziren garaile. Gero gerokoak...



ENTZUN AL DUZU, EH? BAI, KEPA, BAI.

Hitz joko erraza, badakigu. Baina politikagintzan holakoak entzute-ra ohituak gara. Ez da Hala?

EUTSI GOIARI!

Batzuek anbizioz, besteek erortzeko bel-durrez, denek eutsi nahi izan zioten zeukatenari. 26an etorri ziren jauziak, batzuentzat, erorikoak, besteentzat.



IRTEERATIK IRTEN ETA SARRERATIK SARTU

Horren erraza balitz... Ez da hala, oster, politika. Sartu nahian eta irten ezinean ibili dira. Sartu, atera eta airea pasatzen utzi.



BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK

berreskuraturiko egurraz eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisan lanak, lorategi eta barrualdeko-proiektuak egiten ditugu

AZAROAREN 15A ARTE

%30 eta %50eko beherapenak

Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013



ALTZARIAK

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Aiztogile (KUTXI), 23

hala bedi
IRRATIA

Handituz doan irratia

Zure irratian 107.4a bilatu baino ez duzu egin behar Hala Bedi entzun ahal izateko. 15 urte igaro dira lehenengo programak airean jarri zirenetik. Hortik hona gauza asko aldatu dira, irratiiko filosofia izan ezik. Hala Bediko kide Patas-ek azaltzen duen bezala, ahotsik ez zutenei, boza eman die Irratiak betidanik, esaten dutenari garrantzia emanez.



Bisitatu
gaituzten
askok
kostata
sinesten

Irrati libre batek gainontzeko komunikabideetan ahotsik ez dutenen sektoreen bilgunea izan behar du, adierazten du Patas-ek, eta dudarik gabe, Hala Bedi-k baldintza hau betetzen du. Presoen ixilaraziriko eskariak, ekologisten kezkak, emakumeen errebindikazioak, kezura musikalak zein sexualak, hemengo eta beste herrietako kulturak...; hauek guztiek badute bere tokia irrati honetan.

Programazioa ez da gehiegi aldatu joan den ikasturtetik hona; alabaina, urtean zehar irratsaio berriak aireratzeara espero dute irratiiko kideek, ideiak ez dituzte falta-eta. Ale hau ixterako oraindik ez zuten Hala Bedi-koek programazio berria zeharo osatuta; erne egon, beraz, Geu Gasteiz aldizkariaren hurrengo aleetan, berau argitaratuko baitugu.

Komunikabide hau hasieratik jarraitu duenak inork baino hobeto ezagutuko du Irratiaren bilakaera.

Lehenengo irratsaioetan, apika, hitzak baizik ez zuen garrantzirik; gaur, berriz, zentzu hori galdu gabe, teknologiak eta honek dakarrenak badute bere tokia. Programa gehienek kalitatea nabaria da, profesionalak ez diren arren, Irrati librearen egiten dutenek produktu ona ere eskaini daitekeela erakutsi dute.

Bazkideen garrantzia

Teknologikoki azken bolada honetan Hala Bedi inbertsio ederra egin behar izan du, Irratiaren irudia nolabait hobetuz. *Bisitatu gaituen askok, azaltzen du Patas-ek, kostata sinesten dute hau irrati libre bat izatea, "kutreagoa" izan behar zuelakoan, baina ez da zertan horrela izan.*



kutreagoa
izan
behar
zuelakoan

Aurrerapen hauek kontuan harturik, dagoeneko, Aialako haranean eta Arabako Mendialdean entzun daiteke Irratia, bertako kolektiboen lanari esker lortutako kapitalarekin beharrezko tresneria erosi eta gero.

Hori jakin eta ere, halako ekimen bat bizirik mantentzeko, nahitaez inbertsioak egin behar dira noiz-behinka. Ahots gabe-koek hitz egiten jarrai dezaten Hala Bedi-ko bazkideen pisua oso garrantzitsua da. Hala Bedi irratiak hasi duen bazkidetza egitura honetan urtero kuota bat ordainduz esku hartu nahi baduzu, eman zure izena Irratiaren egoitzan.

IRUSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

hala bedi

IRRATIA

HALA BEDI IRRATIA
Aiztogile (Kutxi) kalea, 83-1.a / 01001 GASTEIZ
945 120 720 - Faxa: 945 120 715
@mail: hbi@eusnet.org

Magazinen apostua

Hala Bediko jarraitzailea baldin bazara seguraski *Suelta la olla* entzun duzu noizbait. Laupabost urte darma irratsaio honek antenan eta hor tinko azaltzen zaigu egunero, asteburuak izan ezik, noski. Patas-ek, magazineko ahotsa, komentatzen zuenez goizeko ordutegian lau orduko irratsaio bat ateratzea oso zaila egin zitzaigun hasieran, Hala Bedin dabilen jendea ordu hauetan lanean edota ikasten aritzen baita. Lehenengo urteetan irratsaioa egun batzuetan egiten zen, beste batzuetan, ordea, ez. Gaur egun astelehenetik ostirala arte hor gaude eta merezi du, jende heldu askok entzuten gaitu-eta.

16:00retatik 18:00ak arte euskara-ren apustuaz *Bagazina*-n goza zaitezke. Hauek asteartetik ostirala arte garatzen dute beren proposamena. Maiatzean abia jarri zenetik astiro-astiro hobera doan irratsaioa da. *Jaioberriak* bezala zaindu beharra dugu irratsaio hau, aditzera eman zuen *Patasek*. Elkarrizketak, eleketak eta abar dira *Bagazina*-ren baliabideak. *Geu Gasteiztik* ekimen hau zoriondu nahi dugu; eta ez dago sari hoberik irratsaio berezi bezain gozagarri hau entzun baino!!! Zorionak *Hala Bedi*, eta hala izan bedi beti eta betiko!

TESTUAK: RAUL SAEZ DE BURUAGA
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ



1 x 2 =
2

2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!

zure aita, ama, anaia, arreba, iseba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagarreba, amagarreba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

...EGIN ITZAZU
HARPIDEDUN

PASAIEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

Izen-deiturak _____
Telefonia _____
Helbidea _____
Kodea _____
Herria _____
Jaiotze data _____ Lanbidea _____

Urteroko kuota: 1.500 pezeta

Kontu zenbakia (20 zenbaki)

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA

Pedro Asua, 2. BA.

01008 TFNOA: 22 21 53



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95



Aiztogile (KUTXI) kalean

gia bere kantuetarako sonoritate desberdina lortu duela azken lan honetan. Egia New York-etik etorritako musikariek lan ederra egin dutela, eta, baita egia ere, bat-batekotasun handiko diskoa dela. Dena den, guri gehien inporta zaiguna da diskoaren izenburuak ez duela gezurrik esaten: harria ez da gelditzen, eta gainera dabilen bitartean lan bikainak eskaintzen jarraitzen du. Baina izan dadila Ruper bera hau azalduko diguna.

Batek pentsa dezake EEBBetatik ekarritako hiru musikarirekin grabatzea eta Quimi Portet soinu-nahasketa lanetan izatea luxuak direla, batez ere Euskal Herria merkatu nagusia duen kantari batentzat.

Bai. Ni hara joatea errazena bazen ere, ez nuen aukerarik izan aurrekontu arazoak, eta batez ere, kontrol arazoak zirela eta. Pentsa daitekeenaren aurka, atzerrian askotan lan teknikoak merkeagoak dira.

Nola lortu zenuen musikari hauek zurekin diskoa grabatzea?

New York-en bizitzen egon nintzenean musikari hauek ezagutu nituen. Dena dela, hona ekartzea ez zen oso lan nekagarria gertatu, zeren musikari hauek, handiak diren arren, jende gutxi ezagutzen baititu. Gezurra badirudi ere, gauero jotzen dute hango zenbait pub eta tabernatan, edozein lekutan, nahiz eta hainbat disko grabatuta izan. Oso puruak dira. Lehengo galderaren harira bueltatuz, nik uste luxua buruan eduki behar dela, asmoa ahalik eta gorenera zuzenduz. Nik beti esaten dut heroiek bezala pentsatu behar dugula gizonen modura jokatzeko; zure tiroa erdiko aldera zuzentzen baduzu erraza da lurra jotzea eta, aldiz, gora eginez gero beharbada erdia joko duzu. Sentitzen dugun txikitasun hori irudimenarekin borrokatu behar da. Adibidez, Hiru Truku proiektua txikia bada ere, bere bitartez irabazitakoarekin folk munduko

Ruper ordorika

Azkenengo hilabeteotan Ruper Ordorika *Dabilen Harria* izena duen lanaren aurkezpenean murgildurik dugu; bere kantuetarako **bestelako sonoritatea** bilatzearen emaitza, New York-etik etorritako Ben Monder, Kenny Wollesen eta Skuli Sverrison-en laguntzaz gauzatutako lana, eta **bat-batekotasun handia** gorde nahi izan duen diskoa, hain zuzen ere.

TESTUAK: TXABI ARNAL GIL ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

Dabilen harriari ez zaio goroldorik lotzen betidanik atsegin izan dut Axularren esaldi hori

musikari handiak gonbidatu genituen, eta kantak Ingalaterran nahastu genituen. Beraz, nik uste dut aukerak ezagutzen aritu behar dugula luxuak direla aldarrikatu beharrean. Luxua da buruan daukazuna egitea, eta horixe da urte hauetan egiten saiatzen ari naizena. Azkenengo disko honi dagokionez, eta aurreko laurekin konparatuz, gauatzeko prozesua aldatu da; Mahoma mendira joan ezin zitekeenez, mendia Mahomarengana ekarri dugu. Gitarrajolea, Ben Monder, ezaguna nuen So Ik So diska nirekin grabatu zuen-eta; harreman estu samarra daukagu. Estatuan zehar bira txiki bat antolatu genien. Besteak beste, Santanderren, Madrilén, Oñatin, Donostian, Getxo eta Gasteizen lortu genituen kontzertuak. Hori horrela, zuzenekoetan aritu bitartean nire jendea prest zegoen Azkaraten grabatzeko.

Orduan zurekin grabatu duten hiru musikari hauek ez dira kalekoak.

Ez, ez nituen kalean ezagutu, aipamenengatik baizik. Oso curriculum handia dute entzunak ez diren arren. Nik sarritan esaten dut musikariok, batzuetan, dirua baino parametro altuagoek mugitzen gaituztela.

Eta zuzenean elkarrekin aurkeztuko duzue disko hau?

Ez. Ben eta biok elkarrekin izan gara Madrilén, baina kointzidentzia hutsa izan da. Zuzenekoetan ohiko taldea izango dut. Orain badabilta abesti berriak prestatzen, eta urriaren erdi aldean entsaioetan denak elkarrekin hasiko gara, azaroaren amaieran kalean egon ahal izateko; Bilbon eta Donostian hain justu ere.

Eta zu, bueltatuko zara Estatu Batuetara haiekin jotzeko?

Esanda gaude zer edo zer egiteko, baina hau oso modu apalean egin behar da. Pentsatu beharra dago New York-en lokal alternatibo piloa dauden arren, euskal kultura oso gauza marjinala suerta daitekeela. Nolanahi ere, erdi hitz eginda dauka-

gu handik joanez gero guztion artean kantak prestatu eta agerraldiren bat antolatzea. Kontuan izan behar da hiru musikari hauek ez dutela elkarre-

Besteen
hitzak
kantatzeak
segurantzaz,
babespea
ematen
diola
esan
zigun
Ruper
Ordorikak



kin jotzen, ez dutela hirukote bat osatzen mundu berekoak badira ere.

Kantak era akustiko ala elektrikoan grabatzeko irizpide garbiak dituzu?

Agian betiko estilotik pitin bat kanpo daude kanta hauek. Jendeak pentsa lezake disko hau oso zaila dela, baina niri, berriz, oinarritzora zuzendu garela iruditzen zait, eta hori horrela, pentsa daiteke era akustiko eta elektrikoaren arteko aldeak ez direla oso garbiak. Kantak bakarririk egiten ditudala, normalean etxean, gitarra akustikoarekin, auzokoen kexarik ez jasotzearen, kontuan hartu beharreko gauza da. Beraz, kanta guztiak bakarrik jo ditzaket. Alabaina taldearekin beste sonoritate bat lor daiteke, ez Ruperrek gehi musikari batzuek lortutakoa, baizik eta benetako talde baten sonoritatea.

Nola edo hala, kantak beti nagusi.

Hiru Trukuren bigarren lanean Martin Karpin izan genuen musikari gonbidatua, nire idoloa folk munduari dagokionez, hain zuzen. Muti-

kotan, Ingalaterran bizi nintzenean, gau batean Karpin ikusteko parada izan nuen eta hurrengo astean garai hartan modan zeuden The Smiths. Eta etxerako bidea ibiltzen nire buruari galdetzen nion nola litekeen nik horrenbeste atsegin izatea orain berrehun urtetako balada bat kantatzen zuen bakarlaria, eta The Smiths bezalako talde bat. Zer behar da? Zer dago? Zer ardatz dago hori gerta dadin? Nik uste dut behar dena eta dagoena gauza bera dela; kanta, hain justu ere. Kontua da zer eta nola egin, taldea musikari eta entzulegoaren arteko oztopoa izan ez dadin, lagungarri baizik.

Hautatu idazleek emandako kantak zureak bailiran sentitzen al dituzu?

Ez dezagun ahantz disko honetan Sarrionaindiaren bi hitz daudela.

Testu bat aukeratzen dudanean, kanta batentzat aproposa dela jakiteaz gain, sentitu behar dut. Besteen hitzak kantatzeak segurantzaz ematen dit, babespea. Asko miresten ditut

kantatzen ditudan idazleen gauzak eta idazleak eurak. Nik beti uste izan dut kantari askok Sarri, Atxaga eta Iturrালের hitzak kantatzeak asko esaten duela Sarri, Atxaga eta Iturrালের alde, eta beharbada, aldiz, oso gutxi gure alde. Honetaz nik uste badagoela zer pentsatu, baina uste ere egiten dut nire lagun onak direla, eta ea zergatik ez ditudan kantatuko eurek sortutako hitzak.

Eskatu al diezu inoiz abesti baterako testu bat?

Ez, ez, ez, inoiz ez. Nik beti abesten ditut idatzita dauden gauzak.

BAT-BATEKOTASUNAREN BILA
ABIATU DA ORAINGOAN RUPER,
HARMONIA ASMATU ETA
AHALIK ETA LASTERREN GRABATUZ

Eurek eskainitako hitzak dira orduan?

Irakurri ondoren, gogoko izanez gero, zinta batean grabatu eta bidaltzen dizkiet. Normalean lehenago sortutako hitzekin lan egiten dut, baina nahi nuke inoiz idazlearekin batera abestia kreatu. Oso esperientzia aberasgarria litzateke.

Eta noizko zure rock and roll bat?

Zure abesti batzuk lehertzeaz egon arren, ez dute eztanda egiten. Gitarra zorrotzak erabiltzen dituzuenen bolumena behera jaisten da. Beldurtzen al zaitu bolumen altuak?

Hori erazko arrazoi bat da, hautaketa bat. Musikari hauek edozein gauza jo dezakete, eta bolumena igotzeaz dagokionez, oso gauza erraza dela esango nuke. Ni beste bizitasun mota baten bila nabil, nire intentsitatearen bila, alegia. Ezin da esan disko hau rock-ean oinarrituta dagoenik, ezta pop, jazz, edota folk-ean ere, kantuetan baizik; dauzkan kantuetarako eginda dago. Rock-ari dagokionez, nire ustez rock-aren barruan esparru asko daude, eta beti ulertu izan dut rock and roll-a jarrera bat bezala.

Dena dela, zure kontzertuen amaieran

beti kanta azkarrenak eskatzen dizkizute.

Bai, egia, baina hori zeharo normala da.

Ez zaitu amorratzen beti hartzen dituzun kritika onak salmentekin bat ez etortzeak?

Badakizu horri buruzko erderazko esaldi bat dagoela: que hablen de mí aunque sea bien, edota nitaz berba egin dezatela nahiz eta

Eragin handiagoa du lan koherentea egiten ari zarela jakiteak prentsaren kritikak baino

dieten arren, Euskal Herriatik kanpoko lagun gutxi ezagutzen zaitu. Kontatuko dizut orain urte batzuk



ongi den. Kritika txarrak jasotzea zaila zaio edozein musikariri, orduan, jakina, hobe da onak izatea. Hala eta guztiz ere, nik uste eragin handiagoa duela lan koherentea egiten ari zarela jakiteak prentsaren kritikak baino. Nire lanak beti sartzen dira kultura atal horretan, ez radio-formuletan, eta horregatik ez dut jasotzen errepikatzearen mesedea. Gaur egun maiz entzuten ez den musika derrigorrez zail bilakatzen da jendeak ez daukalako entzuteko astirik. Baina horrek sortu ere egiten du oso zaletu gertuak izatea, ohiko gauzetatik kanpoko musika entzuten saiatzen den entzulegoa. Nik uste dut egoera horrela dagoela, eta mundu honetan ezin daitezkeela gauza guztiak aldatu. Dena den, batzuetan laudorioak onartzea gaitza gertatzen da, ez dakit zergatik.

Eta Espainiako komunikabideek zure diskoei beti kalifikazio ona eman

multinazional bateko kargu handi batean dagoen nire antzinako lagun batek esan zidana, musikaria izana: eurek baieztatu dute kritika musikalak ez daukala inolako eraginik...

Euskal Herrian, musika estilo hone-tan asko ez zaretela kontuan hartuz, bakarrik sentitzen al zara?

Batzuetan bai, baina hori berezkoa da ofizio honetan. Denok, nahiz eta antzerako estiloan aritu, bakarrik sentitzen gara estudioan, erabaki behar dugunean. Neure burua ikusten dut elkarte baten parte, oso garbi daukat nire entzulego naturala hemengoa dela, eta alde horretatik ez naiz bakarrik sentitzen. Nik uste gertu dauzkadala entzule batzuk, eta baita beste musikari asko ere, estilo desberdinetan aritu arren. Hori hemen dugun dohain bat da; gure garaian bakarlaria izanda rock talde-etan lagunak edukitzea oso gauza bitxia izan daiteke Madril aldean,

esaterako, non bakarlaririk apartaturik dauden besteengandik.

Hertzainak eta Cicatrizekin arituzinen orain urte batzuk.

Bai, eta garai hartako oroimen ederrak gordetzen ditut, gure arteko harremana oso sotila zen-eta. Gaur egun babesten nauen beste hartueman bat daukat, lagun idazleekin dudana, hain zuzen. Oso garrantzizkoa da pertsona batzuk gertu edukitzea, zure buru-trip horiek babesten dituztenak, balioa ematen dietenak.

Azkenengo hamazortzi urte hauetan asko aldatu dira Euskal Herriko musika, eta musikaren egoera. Zuk, berriz, eusten omen diozu betiko estilori.

Nire ustez egin ditudan disko guztiak diferenteak dira, baina tira, hori nire iritzia da.

Uste al duzu azkenengo disko hau orain hamabost urte egin zenezakeela?

Baldintza tekniko guztiak gaituta? Ez, nahiz eta hari etengabea egon, ez. Dena den, beten batek parekatu du Dabilen Harria lehenengoa-rekin, seguru asko azken honek oinarritzora jotzen duelako, kantuari bidea libre uzten diolako. Alde horretatik badago konstante bat, baina Dabilen Harria-n badaude testu batzuk orain hamabi urte sekulan idatziko ez nituzkenak. Esperientzia berriak bizi izan eta bizi

ditut. Nolanahi ere, nahi baduzu hasiko gara aldeak banan banan zehatzen, baina dudarik ez, berdintasunak ere badaude.

Aipatu bi desberdintasun.

Teknikoki beste sonoritate bat dago, eta testuei buruz, horixe, lehen esan dizudana.

Aldatzen zarenean jendeak nekez onartzen zaitu, betikoa egiten duzunean, aldiz, inoiz eta ezer aldatzen ez duzula leporatzen dizute.

Entzulegoa inportantea izateaz gain, neurri batean, guretzat dena da, zeren entzuten ez dena desagertzen baita. Hala ere, nik ikasi dut hori burutik kendu behar dela, musikalak ez diren arazoetara eramaten zaituelako. Jendeak aldatu behar duzula ala ez pentsatzen duela... Hori ez da arazoa, baizik eta norberak lanean sinestea, norberak egiten duena sentitzea. Nik kantatzen ditut nire gauzak, eta hori beharbada muga bat da, baina saiatzen naiz nire muga horren barruan, nire esparruan, sakontzen. Ez dut sentitu nahi apaingarriak kanten eta entzulegoaren arteko oztopo bilakatzea, baizik eta apaingarriak beste norabait joateko aukerak izatea.

Aldez aurretik pentsatzen al duzu nolakoa izan behar duen diskoak,

edo kanteak eurek osatzen dute berau?

Aurreko disko gehienetan estilo eta soinua zehatzak bilatu nituen. Abestiak egiten ditut nik bakarrik, baina noizean behin, musikariekin nagoenean intentsitatea alda daiteke eta rockago bihurtzen da. Halaz ere, nire joera naturalak erdiko tempoetara eramaten nau, hitzari lekua emateko. Orain bat-batekotasunaren bila noa, harmonia asmatu eta ahalik eta lasterren grabatu.

Dabilen Harria-k zerikusirik du Muddy Waters-en Rolling Stone abestiarekin?

Ez, hori geroko hausnarketa da. Dabilen Harria hamazazpigarren mendean Axularrek idatzitako esaldi bat da, *dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen*, beti gustatu zaidan esaldia. Gero, Estatu Batuetako musikari hauen bitartez, jakin dut Ameriketara oso esaera arrunta dela, klitxe bat dela blusean. Dylan-ek ere halako zerbait kantatu zuen. Jokoa aberatsa da, zeren beste herri batean esaera horrek seguru aski egia borobila esango baitu. Haatik, ibiltzearekin lotzen dut, hori nire metodoa delako.

Eta Gasteizen noiz ikusi eta entzungo zaitugu?

Urtarrilean, Printzipalean. Gero saiatuko gara beste bat egiten, baina beste era batera.



Kantuari
bidea
libre
uzten
dio
Ruper
Ordorika
Oñatiko
musikariaren
azken
lan
Dabilen
Harriak



Ben Monder

Skuli Sverrisson

Kenny Wollesen

gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formate berrian



IZENBURUA: DABILEN HARRIA.

TALDEA: RUPER ORDORIKA.

DISKETXEA: NUEVOS MEDIOS.

URTEA: 1.998.

Hirugarren honek Tom Waitzen azken bi diskoetan jo duela esatea, aski da musikari hauen mailaren berri emateko. Giro handi

bateko diskoa egin nahi izan duela dio Ruperrek, eta egin duela esan beharra dago. Iturri askotatik edaten duen disko hau (rocka, jazz, folka...) entseiatu gabe grabatua dago, naturaltasunean atzeman daitekeen bezala. Hamaika hitz eta kantu berri, oinatiarraren jarraitzaileen pozerako eta gainontzekoen tentaziorako. Eskura ezazue eta gozatu gauzak alde direnean, proba damurik gabe gainera. Bananondoen azpian baltsean, egunak eta urteak.

IGOR ELORTZA

IZENBURUA: SOINUGORRI.

TALDEA: IKER GOENAGA.

DISKETXEA: ELKARLANEAN.

URTEA: 1.998.



dantza izerditsuetan eta, konturatu gabe, Soinugorri izeneko disko honetan, humanitatea, tradizioa eta naturarekiko sentikortasun eta solidaritaritatea azalartzen ditu, intuitiboki.

Melodia sinple, jostari eta

sendoen gainean 14 kantu eder eraikitzen dira, espazioan lasaitasunezko uhal bat zabalduz.

Soinugorri honetan eskaintzen den izate akustikoa da, momentu honetan, Iker-en apostua: norberaren tradizioaren arrastotik galdu gabe, identitate handiko musika moderno, unibertsal eta iraunkorra sortzea.

Bai polita, ausarta, aparta, txikia, bitxia, bizia gure Soinugorria.

ESTITXU BREÑAS

Dabillan harriari, etxetako goroldiorik lotcen. idatzi ei zuen Axularrek 1556an, beste hainbat hizkuntzatan ere aurki litekeen esatera gure eginez. Ruper Ordorikari ere, ez zaio erraz lotuko goroldiorik, ez baita geldirik egotekoa oñatiarra. Hautsi da anphora bere estreinako diskoa kaleratu zuenetik hemezortzi urte igaro dira jadanik, eta ordutik beste hainbat lan burutu ditu bere zaleen gozamenerako. Dabilen harria, atera berri duen seigarren diskoa gauzatzeko, EEBetako jazz eta bat-batekotasuneko hiru musikari bildu ditu: Ben Monder, Skuli Sverrisson eta Kenny Wollesen.

1998.eko udaberrian Elkarlanean estudioan Jean Phocas-ek grabatu eta nahastua. Iker Goenagaren (Zizurkil/ Gipuzkoa -1974.eko maiatzak 31) bakarkako lehen disko hau bere kreatibitate garatu eta porrokatuaren arragoa da: musikarekiko duen konpromezu tinko eta amalea dela medio, urte askotako lan mardul eta serioaren isla. I. Goenagak musika maite du, berezko grinak maite ditu intentsitatearekin. Sustraiak maite ditu, adarrak bezainbeste, bien arteko lotura eta menpekotasunaz jabetzen baita. Herria maite du, bere melankolian, bere une zorionsuetan, bere festa ludiko zein

gureak

Arabako taldeen zerrenda luzea

BOUNZIN

1997garren urtean sortu zen arren, Bounzin hirukote gasteiztarrek kaleratzear du bere lehen KD-a; industri soinuak, BIT-a eta Metala nahasten dituzten hamar abesti. Ideia freskoak Euskal Herriko musika munduan. Isi Garcíak -bateria, ahots eta programazio lanetan-, Alberto Ruizek -baxu, programazio eta koruetan-, eta Jesús Pérez-ek -gitarra eta koruakosatzen dute 939355439 telefono zenbakian aurkitu ahal izango duzun hirukote hau.

LA XETA PASOTE

Belén, Plum, Mamen eta Marta. Punk, rock, ska, errebindikazioa eta ekintza zuzena. Ikusgarriak. Euren alde-rik onena zuzenekoa. Txarrena? Zoaz zuzenekoetara eta zuk zeuk erabaki. 919312509 eta festak iraun dezala!



IN-ALBIS

Tito, ahotsa. Txurro, gitarra. Ole, bateria. Victorious, baxua. Hona hemen 96garren urteko gabonetan jaiotako talde gasteiztarra. Musika freskoa eta dibertigarria egitea euren helburua, promoziorako KD bat grabatzea euren asmoa, eta 945246016 euren telefono zenbakia.

TXABI ARNAL GIL



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

ONGI ETORRI

xurruT



KUTXI 103 GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea
on egin!

bokatak, pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

piti-pata

txikiaren orrialdeak

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA

herri politenak



aberi ederrenak

bizikleta gainean

Jon Anderrek 14 urte ditu

Jon Anderrek, txikitan baloiaren atzetik korrika ibiltzen iaioa ez zenez, bizikleta gainean hastea erabaki zuen.

Indurainen bost Tourrak ikusi-rik, halako balentria egitea gustatuko litzaioke. Baina tira, momentuz dastatu behar du Aranako lasterketan lortutako laugarren postua.



Gasteiztarra den bezala, lautadan eta sprint-etan primeran doa, baina errepidea maldan gora doanean arazoak izan ohi ditu.

Bizikletan trebea den gure lagunak kiroltan aritu kirolak telebistan edo irratian jarraitu baino nahiago du. Hau bai dela kirolzale izatea!.

MEKO MEKO MEKO **LAGUNA** MEKO MEKO MEKO



Kanta Ttikiak

Josune Lopez, Anutxi
Lazkanotegi eta Xabi Lopez
HIRUSTA RECORDS, 1998.

Etxeko txikienek eskertzen jakingo duten diskoa produzitu du Mikel Errazkin-ek Hirusta Recordsentzat. Hondarribia-ko Ama Guadalupeko Ikastetxeko haur-
rrengan pentsatuz bilduriko hamabost kantu ttiki hauek, disko polita osatzen dute. Abesti gehienak Josune eta Anutxik egin dituzte, eta diskoa osatzeko Loudes Zubeldiaren bi, eta abesti herrikoi bi gehitu dituzte. Mikel Errazkin Sorotan Beleko kantugile eta flautajole ezaguna eta Xabi Lopez gitarra-jolea arduratu dira moldaketa zereginez. Hauetaz gain, proiektu desberdinetan diharduten hainbat musikaririk hartu dute parte disko honetan: Aitor Etxaniz, Aitor Furundarena, Alan Griffin, Igor Oiarbide, Iker Goe-naga, Nieves Arilla eta Pello Ramirez. Iratxe Vergararen marrazkiek eman diote azken kolore ukitua diskoari. Trena, motxila, andereñoa, gailetak, oiloa, mantala, hartza, jolasa, kai zaharra, Imanol karakol eta Bixigu katua, txotxongiloak etabar dira mintzagai hitzetan haurren aho-belarriak goza daitezten eta nola ez, gurasoren batek ere abes ditzan. Jolas gaitezen denok, txiribiri bom bom, txiribiri bom!, jolas gaitezen denok, ez al hator? Hor konpon!

1901 E101128



pertsonak benetan elkar maitatzen dutenean.



ZER DA ZU

Ohiturak dioen
bezala, ezkontza
bizitza osorako
da eta bakarrik
gerta daiteke bi



Gonbidatuak eta ezkongaiak
ezkongaiak bizitza osorako el-
ospatzeko bazkari ha-

VEZISEVI
UESI WYD
WAPKPEKI
STENISAF
KIPVIA PZ
FVTTB OIAV
ZDARKTST
IOIHA OEW
Y W V I H AB

WIZKI-ZOPA

Kirolak.

Zer moduz kirola egiten badugu?
Ondo ba, baina aurretik alboko
hizki-zopan galdu
zaizkigun zazpi kirol mota aurki-
tu beharko dituzue.

Ea gai zareten!

geugenjeim

ODON DE APRAIZ IKASTOLA

AMAIA

IRATI



URETZAT...



Ezkontza batez ere prestatzen da ba-
karrik ez bizitze-
ko, eta ezkontza
eguna ondo jateko
egiten da.



Testuak: Itziar Uriarte / Asier Pz. de Karkamo Argazkiak: Edoña Sanz



elizara joaten dira. Hantxe
elkartzen dira, eta gero hau
andi bat egiten da.

AGENDA

Antzerkia.

THÉÂTRE BEYOND WORDS

"The Potato People
in school daze"

Azaroak 8, igandea.

Arratsaldeko 18:00etan

- 7 urtetik aurrera
- Antzerki talde kanadiarra.

Sarrera bakarra: 900. 16 urtetik
beherakoentzako: 450 pezeta.

Antzerkia.

PORPOL

"Xolak badu lehoien
berri"(euskaraz)

Abenduak 6, igandea.

Arratsaldeko 18:00etan

- Bernardo Atxagak idatzita.
- 6 urtetik aurrera

Sarrera bakarra: 900. 16 urtetik
beherakoentzako: 450 pezeta.



Denetarik.

AEK EGUNA

Azaroak 8, igandea.

Legution. Egun osoz

Txan Handia, Karaokea,
Haur Parkea, Gorriti, kon-
tztetuak...

Kangeuroak

HAURRAK ZAINTZEN DITUGU

GOIZEZ		LORENA	27 10 13
NEKANE	26 91 53	MONTSE	26 78 12
EDUARDO	14 21 99	AINARA	23 38 28
LEIRE	27 32 81	TXARO	28 08 85
LORENA	27 10 13	MAIDER	24 90 62
AINARA	24 04 42	ARRATE	25 64 01
ANA	26 65 95	PATRIZIA	13 93 37
ERIEE	29 96 50	ASTEBEVRVAN	
ESTITXU	27 65 07	OLATZ	25 61 20
ARRATSALDEZ		MONTSE	26 78 12
OIHANA	25 30 35	ARRATE	25 64 01
AINZANE	27 09 64	PATRIZIA	13 93 37
IRATME	24 51 81	LEIRE	23 12 23
AINARA	23 38 28	JOSE ANGEL	27 62 14
LORENA	27 10 13	SAIDA	26 58 05
PATRIZIA	27 78 19	IDOIA	24 47 79
LEIRE	23 12 23	MAIDER	24 90 62
MAIDER	24 90 62	BELEN	13 65 10
ESTITXU	27 65 07	MONIKA	13 86 21
GAVEZ		ITZIAR	13 86 21
ESTHER	27 84 57	M. JESUS	13 84 35
IDOIA	24 47 79	ESTITXU	25 99 60

ATAL HONETAN AGERI NAHI BADUZU DEI
HONAKO TELEFONO ZENBAKIRA:
945 22 21 53



Haurrak zaindu nahi badituzu Geu Gasteizek
lehoi ezinhobea eskaintzen dizu. Deitu gure
telefonora eta goiko zerrendan ageriko zara.
(945 22 21 53)

nork esan du guk marrazten ez dakigunik!?

JANIRE

JOSEDA

SANDRA



Patxi Salaberri, *Axularren historiak* liburuaren idazlea

Euskal idazle klasikoak ez dira mamuak; irakur ditzagun



Argi dago XVII. mendetik gaur egunera gure hizkuntzak dezente eboluzionatu duela, bizi-rik dauden mintzaira guztien antzera, euskarak aurrera egin baitu, eta egin beharko. Horrexegatik, edozein hizkuntzatan, sarritan, beste garai bateko autoreen obrak ulertzeak lan handia eskatzen digu. Patxi Salaberri, Axularren historien gainean prestatu duen bere azken liburuan, urdazubiarraren obraren irakurketa errazten saiatzen da, gustuko izan dituen autore honen *Gero* obraren pasarte batzuk hartuz eta gaur egungo grafiara moldatuz, oinarritzko testua eta ezaugarriak nolabait errespetatuz.

Axularren historiak oso bitarteko aproposa izan daiteke Urdazubin sortu euskal idazle klasikoaren obrara hurbil gaitzen, Patxi Salaberri, liburu honen egilea, adierazi duenez: Atari modura ulertu behar da liburuxka hau "Gero" sakonago ezagutzeko.

Patxi Salaberri ondo eza-gutzen ditu irakurleak aurkitzen dituen oztopoak Axular bezalako idazleen obretara hurbiltzeko orduan; hau dela eta beldur eta prebentzio horiek kentzea du helburu liburu honekin. Jatorrizko liburuari egindako traizio horiek zuek testuratuak izan dira, irakurle, ongitxo baitakit irakurketa normalatsegina baino ez duzula nahi eta soberan dituzula gainontzeko behaztopa guztiak. Testuak irakurterraz bilakatzea,

beraz, egungo grafiara itzultzeko arrazoia, azaltzen du aramaioarrrak liburuan egingiten duen sarreran.

Proiektu berriak

Nolahi ere, aditza forma bitxiz eta lexiko aberatsez betetadago liburua. Autoreak adierazi bezala hitz baten

esanahia ez dakienak -eta testuinguruaren bitartez gai ez

bada- bide bakar bikoitza du ezjakintasunetik ateratzeko:

galdetzea edota hiztegia. Liburuak, zalantzak errazago argi daitezten, ez du jasotzen ez sinonimorik, ez azpi-oharrik, Patxi Salaberriren ustean hauek irakurketa baino ez dute oztopatzen eta liburu-

Patxi Salaberri Axularren obran zentratu ditu bere ikasketak. Bere ustez Gero liburuari buruzko edizio handi eta berri bat egin beharko litzateke, irakurlego zabalago batera heltzeko. Orain arte bi argitaraldi egin dira, bata orain 20 urte Aita Villasantek egin zuena, eta bestea faksimile moduan aurkezturikoa, Euskaltzaindiak argitaratua.

Dena dela, nik ez dut nire burua ikusten halako lan bati heltzeko moduan. Halaber, Axularren inguruan bi obra berri plazaratuko dituela aurreratu zion autore aramaioarrrak Geu Gasteiz gure aldizkariari: Durangoko disko eta liburuaren azokan lehenengo, eta aurrerago, otsaila aldera, bigarrena.

Raul Saez de Buruaga



20
geu gasteiz

bar • restaurante • albéniz •

Errege Atea 9

GASTEIZ

plató

TABERNA

22 65 64

GASTEIZ

Zaldian Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27

Tfnoa: 26 07 10

GASTEIZ

SARTU

Pedro Agerre Azpilkueta 'Axular'

Gero liburuaren bitartez Axularri euskal literaturaren esparruan mendeetan barrena iraungo zuen aitzindaritzira iritsi zitzaion



XVI. mendearen azken erdialdean jaiozako gizona izan arren, urdazubiar honek XVII. mendean garatu zuen bere obra, zeinari esker euskal kulturaren egile handienetarikoa bat bihurtu baitzen. Elizgizon amorratu hau, Salamankan Teologia Batxilergoa eskuratu ondoren, apaiztu eta Sarako eliza nagusiko erretoze izendatu zuten.

XVI. mendeko Erreforma protestaren aurrean erlijio katolikoak bere hastapenak bermoldatu zituen Trentoko kontzilioan. Erantzun atzerakoi honek eragin handia izan zuen garaiko gizarte eta politikan. Axular Kontrarreformaren defentzaila izaki, bere obran ideologia honen kutsua islatzen da nahitahieiz. Hala eta guztiz ere, Gero liburuak, ezagutzen

dugun Axularren obra bakarra, eragin handia izan zuen euskal kulturaren, bere pertsonaiak eta legendak bizirik mantendu baitira euskal ahozko tradizioan.

Axular, bere osotasunean hartuz, euskal kulturaren adierazlerik azpimarragarrienetarikoa daukagu. Patxi Salaberri Axularren obra-bai tematikoki adierazten

digunagatik, bai hizkera beragatik, bai prosaren edertasunagatik irakurtzea behar-beharrezkotzat jotzen du.

Axular 1644ko apirilaren 8an hil zen Saran.

PRIMO LEVI Sistema periodikoa

Itzulpena Juan Garzia Garmendiarena.
Alberdania.
1998. 306 orrialde.



Sistema Periodikoa ez da noski kimika-tratatu bat, zientzia hori arrotz zaion irakurlea ere arras zaletzeko dohanaitu baitu. Autobiografia bat ere ez da, "idatzitako oro eta are giza lan oro autobiografia bat den neurri partzial eta sinbolikoan ez bada: historia, hala ere, bada nolabait. Zera da, edo izan nahi zukeen: mikrohistoria bat, lanbide baten eta haren porrot, garaipen eta miseriena". Hala definitzen du Levik berak liburu. Heziketa moral baten mikrohistoria ere dela erantsi genezake, mende honetako doilorraldi beltzena irudi-hondo.

Aipatzeko modukoa da liburuaren antolaketa dakarren berritasuna. Ho-

geita bat narrazio ditu liburuak, elementuen sistema periodikotik hartuak. Horieta bakoitza giza harremanen eta gizakeriaren beraren metaforatzat har daiteke. Nabarmenezkoak dira, halaber, Levik erabiltzen dituen erregistro eta ikuspegi aldaketak, izugarri aberats baita umore finez eta ironiaz, besteak beste. Italo Calvinok egoki esan zuenez, xarmagarria da Leviren liburu, eta nahitaez arrastoa utziko du irakurlearengan, arrastoa uzteko pentsaturik baitaigo Primo Leviren obra guztia.

GUY DE MAUPASSANT Mari Gizen eta beste zenbait ipuin

Itzulpena Matias Mugikarena.
Igela argitaletxea.
1998. 126 orrialde.



Maisuen maisu narrazio laburraren eremuan, Guy de Maupassant XIX. mendeko ipuin idazle oinarrietarikoa bat dugu Turguenev eta Chejovekin batera, eta sekula izan den istorio asmatzaile handienetarikoa. 1880 eta 1890 artean hirurehun ipuin eta narrazio labur argitaratu zituen, horietako asko eta asko benetako maisu lanak. Hemen aurkituko du irakurleak horietako bat, Mari Gizen izenekoak (*Boule de Suif*, 1880) Maupassantek argitaratu zuen lehena, eta idazle bezala ezagutera eman zuen narrazio ospetsua, seguraski idatzitako onenetarikoa. Ipuin ho-

rretan oinarritu zen, hain zuzen ere, John Ford handia *La Diligencia* film aparta egiteko, edozein zinezalek dakien bezala.

Beste hiru narrazioak ere -Tellier etxea, Baserri neskame baten historia eta Bi adiskide- ez dira atzera geratzen kalitateari dagokionez. Zein baino zein finagoak, Maupassanten estilo soil, zehatz eta zorrotzari esker, gaur egun oraindik ere gehien irakurtzen diren idazletarikoa baten obra mardul, sakon eta modernoari hurbiltzeko aukera ezin hobea eskaintzen digute.

PATZIKU PERURENA Etorrerakoak

Txalaparta.
Amairu Salla.
1998. 126 orrialde.



"Letraduk badaki, probatu hobeki". Leitzako Palurdo baten esatera honekintxe bukatzen da liburu. Apropoza Patzikuren idazteko modua azaltzeko. Letratutik eta probatutik nahastuz birliltzen baititu artikulurik gehienak. Bere hizkera bizi eta zorrotzaren indarrak baliatuz, eguneroko edozein gertakari edo huxkeri, poesiaren urribelax goxora edo pentsamendu xuhur politera ekartzeko ere, trebetasun nabaria du. Horretan,

Patzikuren estiloak, nekez utziko zaitu ukitu gabe. Edo bihotzean xixta! edo gogoan kaxka! baina, nonbaitean eman gabe, nekez.

Liburu honek estilo ugari horren alderdi guziak goxatzeko aukera ematen dizu, euskal kulturaz eta pentsamenduaz ustekabeko kontu polit asko ikasiz bidenabar.

Arriaga
Megadenda

Liburuak ARRIAGA MEGADENDAn aurki ditzakezu. SAN PRUDENTZIO KALEA, 5.

MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ
DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKOA

Jendeak sudur gorri bat ikustean haurrentzat eginda-ko ikuskizunetan pentsatzen badu ere, *Oihulari Klownek helduentzako lanak* eta gaiak jorratzen ditu gehienbat, eta hauetako batzuek pailazo hitza eta bere jarduera oso gogoko ez dutela jakin arren, izena aldarrikatzen dute. Asier Sagastak, Bergaran egoitza duen taldearen bi gasteiztarretako bat, beraien lan eta asmoen berri eman digu.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI ARGAZKIAK: OIHULARI KLOWN

sagasta

ASIER

Azaroan bertan hasiko da, iazko ildoari segituz, ipuin kontalarien zirkuituaren barruan hilero Gasteiza saio bat ekarriko duen egitaraua. Horrela hilerik hile eta hile bakoitzaren azken astean, ipuin kontari arituko dira Oihularikoak eta beraiek aukeratutako beste kontalariak Gasteiz, Iruñea, Donostia, Bilbo, Bergara, Azpeitia eta Legazpin. Zehaztasun guztiak ixteke dauden arren, azaroaren azken astean lehenengo saioa izango da.

Ipuin kontalarien zirkuituaz gain beste hiru lan dituzte estreinatzeko, bakoitza adin talde bati zuzendua: aurrenik, haurrentzako beraien bigarren lana; bigarrenaz, ikuskizun berezi bat adineko jendearentzat; eta, azkenik, helduei, ohiko ikusleak, zuzendutako euren hirugarren lana.

Hamabi kidek osatzen dute egoitza Bergaran duen Oihulari Klown taldea eta guztiek klown eta ipuin kontalaritza teknikak menperatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, Oihulari Klownek egiten duen

lana definitzeko eskatzean Asier Sagastak ez du zalantzarik izan: *Gu pailazoak gara eta gainera izen hori aldarrikatu egiten dugu*. Eta pailazoa, klowna deskribatu du: *gutxi sozializatutako pertsonaia da, gizartearen arauak ondo ezagutzen ez dituen*. Agian betiko zirkoen ikuskizunetakoak dira gehienentzat pailazorik ezagunenak, eta Oihularikoek horiengana errespetu handia dutela adierazi eta ikuskizun horiek ikertzen dabiltzala azaldu du Sagastak. *gure maisuak dira, baina gurea zirkotik bota duten pailazoa da, hunkipenen pailazoa, sufritzen duena*. Izan ere, batzuetan norbaitekin barre egin beharrean, berari barre egiten diogula argi dago.

Klownaren lana ispilu soziala izatea dela azaldu du Asierrek. Eta historian zehar horrela izan dela gogoratu du: *garai batean bufoiek beste inork ezin esan zezakeena esan ohi baitzuten, bai herritarrei bai erregeari, baita jauntxoei ere, eta batzuk hil egin zituzten esandakoa boterearen gustuko ez izateagatik*. Guk askotan,

OIHULARI KLOWN



Salvador-eko Mujeres por la Paz y la Tolerancia taldearekin lan egiteko auke-

Gutxi sozializatutako pertsonaia da Klowna, gizartearen arauak ondo ezagutzen ez dituen

ra etorri zitzaigunean, aprobetxatu eta bertan hilabeteke lana egin zuten.

Taldeak tratu

txarrak, gerraren ondorioak, lege arazoak eta osasuna jorratzen ditu eta batik bat emakumeekin lan egin ohi du. Oso interesgarria, baina izugarri latza izan da El Salvador-eko bizipena.

eta era oker batez, ikusleen barreak izaten ditugu antzezlanaren arrakastaren isla, baina gure helburua pentsaraztea izan behar da. Beraien lanetan jorratzen diren gaiak hausnarketa sortzeko aproposak oso dira: publizitateak zabaltzen dituen mezuak, drogak, gazteen kezka eta arazoak,...

Bat-batekotasuna

Klownak ikuslearengandik hartzen du lanerako behar duen elikagaia, batez ere bat-batekotasuna pailazoaren lanaren ezaugarrietako bat delako. Oihulari Klown-ek taularatzen dituen lanek bat-batekotasunean dute oinarria. Virginia Imaz da taldeko zuzendari eta gidaria, eta, Asier Sagastak azaldu bezala, berau da lanen gaiak aukeratu eta ildo zehazten dituen, baina osotze prozesuan talde guztiak, hamabi aktoreek hartzen dute parte. Inprobisazioak dira muntai guztien oinarria. Gaia zehaztu eta bikoteka edo, bideoan grabatzen diren bat-bateko ihardunak egiten ditugu. Baloratzen ditugu, balio ez duena baztertu eta bizpahiru inprobisazioz geroztik ikuskizunaren ardatza daukagu.

Bat-batekotasunaren ikuspegitik kalean edo aretoan aritzearen artean alde handia dago aktoreentzat. Aretotako saioetan bizpahiru lagunek hartzen dute esku; kalean zortzi edo hamar bat. Bi pertsonaren artean inprobisatzea zaila bada, hamar gaudenean, zer esanik ez!. Horretarako ildo bat zehaztu beharra dago, ikuskizuna zikina, nahasia, gerta ez dadin.

Elkartasuna

Euskal Herrian Mugaz Gaindiko Pailazoen ordezkartitza bat sortzea izan da azken urte honetan bergarar taldearen buruhausteetako bat. 1997ko urtarrilean El Salvadorren egindako lanaren ostean arlo horretan jarduteko asmoa dute, baina daukagun lana eta gure prest egoteagatik gaia apur bat baztertua dugu.

Mugaz Gaindiko Pailazoak Bosnia ko gerran zehar aktore katalan batek sortu Gobernu Kanpoko Erakunde da. Proiektua jaiotakoan haurrekin baino ez lan egiteko helburuaz sartu ginen, eta gaztelazko izenaren kutsu matxista kritikatu genuen, onartu du Sagastak. Nolanahi ere, iaz El



Gainera errealitatea ezin desberdinagoa da eta ulertzen ez denarekin lan egitea ezinezkoa da. Dena dela, las Dignas taldeko egitarauan buru-belarri sartu eta erabat esperientzia positiboa izan zuten bai pailazoez baita El Salvador-eko emakume taldeak ere. Oihularik Ertamerika aukeratu zuen lanearako bertan hizkuntzaren oztopoa ez delako arazo, alabaina elkartasun

pailazoez Bosnia eta Afrikan ere jardun dute, eta arabiar lurraldeetara joateko asmoa ere badute.

Ertamerikakoa ez da taldeak atzerrian izan duen esperientzia bakarra. Asierren bi taldekide Cirque du Soleil kanadarrarekin dabilta egun lanean. Udan Estatuan Alaitasuna ikuskizuna aurkeztu zuen zirkoak, erabat ikuskizun berritzaile eta aban-

goardista da beraiena: poesia, musika, clown-lana,... Estatu Batuetan eta Kanadan arituko dira.

Guretat oso pozgarria da gure bi kidek beraiekin lan egitea, atzerrian gure lana ezagutarazteko ere balio dezake-eta.



OIHULARI KLOWN, ANTZERKIZ BLAI

Klown ikuskizunak

Kalean zein aretoetan aritzen dira Oihularikoak eta gehienbat helduei zuzentzen dizkiete euren lanak, nahiz eta haurrentzat ere lan egiten duten. Klown ikuskizunetan hamar bat lagik aritzen da, aretoetan, aldi bizi-pahiru. Batean edo bestean lan egiteko modua desberdina dela azaldu du Asierrek, areto batera doan jendea lan bat ikustera doa, kalean lanean zaudela, berriz, pasatzen den jendearentzat ere aritzen gara.

Ipuin kontalaritza

Ipuin kontalaritza antzerki modan joni direla onartu du Oihulariko gasteiztarrek. Bergaran kokatuta dagoen taldeak ipuina bidaia biltzen du, batez ere haurrekin lan egitean. Lanerako haurria antza da oso: ipuin klasikoak, Hego-amerikakoak, bertakoak (euskaraz zein gaztelerazkoak). Neska mutilekin lan egitean euren psikologia kontuan hartzea

ezinbestekotzat jotzen du taldeak eta ez dira batere moralezazale. Kontatzen ditugun ipuinen erroak errespetatzen ditugu, baina ogro batek ume bat jaten badu, ume hori gero nonbait eta nolabait agertu behar dela jargi dugu. Gustuko ipuina aukeratzeko da kontalaritza irau garrantzitsuenetakotzat.

Klownklusioak

Azken urtetan asko indutuzten ikuskizun arrakastatsunik dira klownklusioak. Asierrek haur dinamika zaldutuen hainbat ardura duten oskari egiten dira horma gailak. Gailak bik jardunaldiak jarraitzen ditugu eta hauek emaitzean klown-aren ikuspegia ematen dugu, bat-batean, noski. Klownak ustotutako teknika Bataklown talde frantsesetik ikasi dute.

Tailerrak

Klown eta ipuin kontalaritza tailerrak antolatuko ohi dituzte Oihulari Klown-ek;

ikastaro trinkoak.

Enpresa eta erakundeei zuzendutako ekitaldiak

dira. Helburua hausnarketa

era atseginetza eta umorez egitea da. Parte hartzaileen kopurua mugatuta dago (12-15 pertsona ikastaroko), hauei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Aktoreak hartu izan dituzte tailer eta ikastarotetan. Oro har jendea ikastara doa, baina ondo pasatzeko asmoz doan jendea ere badago. Ikastaroak ematean ahazten ez duten oinarria dute Oihularikoek: jendaurrera irteetan guztiek ahalik eta hobekien egingo dutela, duten guztira emango dutela. Horregatik okerren egindakoa baztertuz, ikasleek egindakoaren alde positiboa azpimarratzen dute beti-beti. Ikuskizunak eta ipuinak heldu zein haurrentzat egiten badituzte ere, tailerrak helduentza dira soil-soilik. Haurra berez klowna da. Eta pailazoez haurtzaroon gendukan bakuntasuna berreskuratu behar du, baina guk ez dugu haurra sudur gorriaz ikusten.

Argazki - Estudio
Eramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 13 71 02 Tfnoa: 26 19 91
01006 01004

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ



HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behe
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

EUSKALTEL-EUSKADI 1999ko talde berria

Bost urte igaro dira Euskadi Txirrindularitza Taldea sortu zenetik. Urtetik urtera emaitzak hobekuntza suertatu dira, eta horra hor aurtengoak: sei garaipen, eta Alvaro González de Galdeanoren zazpigarren postua Espainiako Bueltan. Halere, berri guztiak ez dira onak izan, eta joan den hilean Galdeano anaiek taldea utziko zutela jakin genuen. Alvarok eta Igorrek munduko norgehiagokarik onenetan parte hartu nahi dute, eta horren ondorioz, etxetik alde egiteko apustuari baietz esan diote. Zorte on!

Galdeano anaiez gain, datorren urtean Oskar Lopez Uriartek, Iñaki Aiarzaguenak eta Aitor Bugallok ez dute Euskadi taldean korrika egingo. Horrela, hiru arabarrek alde egiten dute -Galdeano anaiek eta Oskar Lopez Uriartek-, eta beste hiru taldean ditugu, Joseba Beloki, Aitor Kintana eta Alberto Lopez de Munain, alegia. Zuzendaria den Julian Gorospe txirrindulari ohiaren hitzetan: "Galdeano anaiek alde egiteak pozten nauela esango banu, gezurretan ibiliko nintzateke. Dena den, kirola horrelakoa da, eta haiek hobetu nahi dute. Orain Arabako hiru txirrindulari daude taldean, eta horien artean Joseba Beloki nabarmendu nahi dut, oso salto ona egin du mundu profesionalera eta zorte pittin batez emaitza onak beregana ditzake aurrerantzean".

Abraham Olano: Orain hila-bete pare bat Olano 1999an Euskadi taldean egon zitekeela entzun zen. Zoritxarrez, hori guztia ezerezean gelditu da, ONCEk Olano fitxatu

Euskaltel
Euskadik
harrobia
du
ardatza,
euskal
harrobia,
gainera.

baitu, baina Gorospek dioenez, ezinezkoa izan da. "Arazoa ez da ekonomikoa izan, edo agian bai, guk Olano fitxa dezakegu, baina ez daukagu dirurik izarrez beteriko taldea osatzeko; bai, ordea, ONCEK".

Dirua dela eta ez dela, txirrindularitzan, futboleko bezalaxe, talde aberatsak eta xumeak daude. Euskadi taldearen aurrekontua 200 milioikoa den bitartean, ONCERena edo Banestorena 1.200 milioikoa da.

Euskal harrobia

Jakina denez, Euskadik harrobia du ardatza, euskal harrobia, gainera, txirrindulari guztiak bertakoak baitira.



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatura - Zaldiaran plaza • GASTEIZ





Nolanahi ere, Gorospek aitortzen duen legez, "biharkoari begira, ez dugu kanpoko kirolariak izatea baztertzen. Orain arteko bidea ondo suertatu zaigu, baina gure bazkideek eta babesleak beste bide bat hartu nahi badute..."

Julian Gorosperen iritziz, "txirrindularitza Euskal Herriko bigarren kirola dugu, aurrenekoa futbola baita, noski. Hori dela medio oso txirrindulari onak dira gurean. Asko daudenez, kalitatea beti azaltzen da. Batak bestea eragiten du".

Euskaltel

Ibon Ajuria • Mikel Artetxe • Peio Arreitunandia
Joseba Beloki • Angel Castresana • Iñigo Chaurreau
Txema del Olmo • Unai Etxebarria
Bingen Fernandez • Igor Flores • Iker Flores
Gorka Gerrikabeitia • Ramontxu Gonzalez Arrieta
Aitor Kintana • Roberto Laiseka
Alberto Lopez de Munain • Alberto Martinez
Mikel Padraera • Aitor Silloniz • Haimar Zubeldia.

Euskadi

Alvarok taldea utziko du bere anaia Igorrek Vitalicidora joateko

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ


EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESTERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

J A T E T X E A



Aiztogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

Azaroaren 8an
LEGUTIO

1998ko azaroaren 8an

AEK eguna
LEGUTIO

geu ere AEKekin!!
BI EUSKARARI!!

10:45 -FESTA GIRA PLAZAN: Trikitilariak, Txistulariak, Gaiteroak, Txalapartariak, Zantantzarrak, Hankapaloak, Eraldoiak, Buruhandiak...

11:00 -HASIERAKO EKITALDIA PLAZAN: Laguntza txistulari eta dantza taldea, Pagohueta trikitia elkarte

11:30 -AEK eguneko KANTIA PLAZAN: Trikitia Kontraio -HARRERA UDALETXEAN -KARAOKEA, HAUR PARKEA, GORRITI eta Erakle EUROBIKIA ZABALAINEN -AEK EGUNeko I. NEKAZAL AZOKA ETA ARTISAU ERAKUSKETA KARMEN KALEAN

11:45 -FOLK KONZERTUA FRONTOIAN: Bitoza Khattu

12:00 -AEK BANDERA ESTROPADAK URTEGIAN -KALE ANIMAZIOA: Zantantzarrak, Txaranga, Eraldoiak, Buruhandiak -ERAKUSKETA: Euskararen inguruko pegoariak eta Kartelak KULTUR ETXEAN

12:30 -BERTSO SAIOA PLAZAN: Asier Iriondo, Enbeita, Jon Mala, Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Oihane Perea -ABESBATZA PLAZAN: San Blas Abesbatza -HERRI KIROLAK EUZARDO PLAZAN: Lopi Kiri Taldea

12:45 -KALE ANTZERKIA Xilipundi taldea, Salom ikuskizuna -KANTALDIA: Niko Etxart FRONTOIAN

13:45 -KANTALDIA FRONTOIAN Aitor Furundarena eta Pabli Kaleko

14:00 -HERRI BAZKARIA IKASTOLAN: Bertsolariak, biste kantolariak, trikitilariak... -KALE ANIMAZIOA: Txistulariak

15:00 -KALE ANIMAZIOA: Ifaki Eguren albokaria

16:00 -POP-ROCK KONZERTUA FRONTOIAN: Betagorri -KALE ANIMAZIOA: Pikor antzerkia: Fingilin komandoa

16:30 -MAGIA IKUSKIZUNA PLAZAN: Txan Handia

17:00 -KALE ANIMAZIOA: Txalapartariak

17:15 -POP-ROCK KONZERTUA FRONTOIAN: Lorelei

18:00 -ERROMERIA PLAZAN: Trikitia Kontraio -KALE ANIMAZIOA: Txistulariak eta trikitilariak

18:30 -ROCK KONZERTUA FRONTOIAN: Zea Mays

19:30 -ERROMERIA PLAZAN: txatz

MAPA: SAN ROKE PARKEA, BIZAKO PI, IKASTOLA, KARMEN KALEA, PLAZA KULTUR ETXEA, URTEGIA, ZABALAIN, GASTEIZ, PASADENA errepele aspiñi

TABERNAK:
1.-AXURI
2.-AMALUR
3.-URKOLA
4.-ENBETZA
5.-ASTOLA
6.-GAZTEI-LAI
7.-PICOS DE RUROA
8.-EL CRUCERO

2 KM. tara PARKINA, EGUN GUZTIAN ZEHAR AUTOBUS ZERBITZUA EGONGO DA

botepronton

Alvaro Glez. de Galdeano

txirrindularia

"Tourrean eta Giroan korrika egin nahi dut"

TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL ARGAZKIA: EDORTA SANZ

28 urte dituzu, eta sasoirik onenean zaude; zein da zure helburua datozen urteei begira?

Tourrean eta Italiako Giroan parte hartu nahi dut. Egia da, sasoirik onenean nago, baina ez naiz gaztea, 28 urte baititut. Vitalicio taldeak Tourrean ala Giroan korrika egiteko aukera eskaintzen dit, eta horren ondorioz, Euskadi-Euskaltel taldea utzi, eta banoa Seguros Vitalicio taldera.

Euskadi izena du zure talde ohiak, Euskal Herritik kanpo nola hartu zaituztete zaletuek?

Denetarik dago. Gehienetan harrera ona egin digute. Nolakoak zareten euskaldunak! Talde bat sortu, non eta Euskadin..., horrelakoak esan dizkigute. Hala eta guztiz ere, beste batzuen ahotan, edo hobeto esanda, bakan batzuen ahotan irainak entzun ditugu. Txirringa gainea, ¡Vascos iros de aqui! entzun, eta ez duzu ezer esaten, baina, jakina, haserraten zara.

Seguros Vitalicio taldeak zure anaia den Igor fitxatu zuenean, bazirudien Galdeano anaiek ez zutela elkarrekin egon behar datorren urtean. Alabaina, egun batetik bestera, zu ere fitxatu zintuzten. Galdeano anaia elkarrekin egon dira beti, ezin dezakezue banandurik korrika egin?

Ez genuen horrelakorik espero, ezus-teko galanta izan da-eta. Anaiaren ondoan egotea atsegin zait, baina hala ez balitz ere, ez litzateke ezer gertatuko.

Aurtengoan *dopingak* min handia egin dizue txirrindulariei, poltsikoei ere min egingo die?

Ez dut uste. Momentuz, ez dugu antzeman, bihar-koan eragin leza-keen arren. Babesle batzuek atzera egin... Denborak du hitza.

Zer falta duzu txapeldun handia izateko?

Osasunez eta zorte onez gain, konfiantza hartu, nire aukeretan sinetsi beharra daukat. Egun txapelketarik garrantzitsuenak erlojuaren kontrakoan erabakitzen dira, eta horietan hobetzea da jomuga.

Arabarrok abizen luzeak ditugu, zenbat aldiz esan dute gaizki zure abizena? González bakarrik edo González Galdeano, "de" ahaztuz...

Telebistan agertzen hasi ginenean, hainbat kazetari nahasten ziren. Alvaro González entzun behar izan dut askotan. González de Galdeano, edo nahi bazuten, Galdeano nintzela gogorazi behar nien horiei, baina ikasi zuten azkenik.

Loroño, Lasa, Perurena, Lejarreta, Indurain, Olano...; zein da Euskal Herriko



txirrindularien sekretua?

Ezbairik gabe, zaletuak dira gakoa. Bide ertzeetan daudela, lehenengoa ala azkena izan, berdin die, txirrindulari guztion lana txalotzen dute. Txirrindulariek izugarri eskertzen ditugu txalo horiek.

Dena dela, zaletu horiexek, komunikabideek... asko presionatzen omen zaituztete beste batzuetan. Zuk ere antzematen duzu presioa?

Nik presioa zer zen ez nekien, aurtien Espainiako Bueltan ezagutu baitut. Lasai hasi nintzen, baina egunak igaro eta postu hobeak lortu ahala, presioaz ohartu nintzen. Komunikabideetan egu-nero agertzen zara, babesleak beraientzat hau guztia oso garrantzitsua dela esaten dizu... Hortxe dago presioa, bai.

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

MIKO

izozkiak



27

guz gasteiz



hizkuntza

“Aurten euskararen aldeko konpromezua lortzen ez badugu ez dugu inoiz lortuko”

Roberto gutierrez

Zergatik hautatu duzue Legutio aurtengo AEK Eguna egiteko?

Ez da inoiz hiriburuetan egin, orduan Gasteizen ezin zitekeen. Arabako herri txikietan euskararen aldeko jaiak egitea egoki ikusten genuen. Gainera, Legutio Euskal Herriko mapan oso ondo kokatuta dago eta giro euskalduna nabaria da ingurune horretan. Badakigu arazoak izango ditugula aparkalekuekin, horrexegatik Foru Aldundiarekin hitz eginda, autobus zerbitzua eskainiko da kotxeak utziko diren aparkalekutik herriraino. Nola agertzen zaigu 98ko AEK

Eguna?

Nahiko beteta. Egitarauan Arabako taldeak sartzen saiatu gara, bai dantza, musika zein antzerki taldeak, trikitilariak eta bertsolariez aparte. Bestalde, Legutioko talde guztiek ere parte hartuko dute egunean bertan; hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu, gurekin oso ondo portatu direlako.

Matrikulazioan eta AEK Egunean erabili dituzuen leloetan -Hauek ere Bai Euskarari eta Geu ere AEKrekin Bai Euskarari, hurrenez hurren- bat egiten al duzue abenduan garatuko

den euskararen aldeko kanpaina erraldoiarekin?

Bai, hala da. Kontseiluak bultzatzen duen Bai Euskarari kanpainaren bidez gure hizkuntzaren aldeko akordio bat lortu nahi da, non euskararekiko konpromezua eskatzen baita. Guk nolabait bi ideia horiek azpimarratu nahi izan ditugu; batetik, euskararekiko konpromezua, pixkanaka-pixkanaka euskaldun kopurua handituz eta, bestetik, elkartasunaren ideia, euskararen alde ari diren erakundeekiko elkartasuna.

Politikaz ez dakit gauza handirik baina egoera aldatu dela argi dago



Azken bolada honetan AEK-ren aurkako erasoak direla eta, oso sasoi gogorra jasan behar izan duzue. Uste al duzu gaur egun egoera nola dagoen ikusita zer edo zer alda daitekeela?

Egia esan politikaz ez dakit gauza handirik. Argi dago egoera aldatu dela. Guztiontzat onuragarria izango dela suposatzen dut. Egiaz ez dakit AEK-rekin erlaziorik izango duen. Ez dakit gehiagotan gure kontra arituko direnentz. Orain arte dakigun bakarra da AEK zirikatu dutela, baina ez dago ezer gure aurka, ez salaketarik, ez beste ezer. Kontua da komunidadeetan agertzen garela eta hori ez da gure asmoa; gure asmoa euskararen alde lan egitea da eta ez halakoe-tan sartuta egotea.

Zer esango zenioke AEK Eguneran hurbildu nahi duenari?

Euskararen aldeko konpromezuari heltzeko esango nioke, guztiok euskararen alde lan egiteko garaia badelako. Aurtengoa konpromezuaren urtea izango da. Aurten gizarte-sektore guztien aldetik euskararekiko konpromezu sendoa lortzen ez badugu, ez dugu inoiz lortuko. Horrelako zerbait erdiesteko hau da momenturik aproposena.

TESTUAK: RAUL SAEZ DE BURURAGA
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ ETA A.P.

21

geu gasleiz



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



*HegoAmerikako
jantzirik ederrenak*

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52



AEK Eguna
Azaroak 8, Legutien

MUSIKA

Joan Manuel Serrat. Sombras de la China du izena Joan Manuel Serrat kantautore kataluniarren azken lana. Berau Gasteizko Principal Antzokian aurkeztuko du datorren asteartean.

Azaroak 10, asteartea.

Arratsaldeko 20:30etan.

Besaulkia-Anfiteatroak: 3.000/2.500.

Principal Antzokia (945 16 10 45)

Zazpi eskale EHUn. Drogak eta bertsok uztartzen dituen ikuskizun musikala gozagarria Zazpi Eskale taldearen eskutik. Azaroaren 12an, osteguna, izango da Campuseko Unibertsitate-Pabilioian. Adi, ordua ez baita batere arrunta: eguerdiko 12:15etan izango da.

Mikel Urdangarin. Bi aste beranduago Mikel Urdangarin kantautore euskalduna ariko da, egun berean (Azaroak 26, ostegunean) eta ordu berean (12:15etan).

(945 18 30 00)

ANTZERKIA

La Fura Dels Baus. Aldez aurretik gauza bat: ikuskizun honek ikusle batzuen sentikortasunari min eman diezaiake. La Fura aipatzea Europan egiten den ikuskizun bisual bikainenaz mintzatzea da. Kasu honetan F@usto version 3.0 antzezlanak dakargute, beren azken arrakasta handia.

Azaroak 17 eta 18, 20:00etan.

Besaulkia-Anfiteatroak: 2.000/1.750/1.500.

Principal Antzokia

(945 16 10 45)

Opera euskaraz. Harribiti musikala, ezezaguna bezain egiazkoa. Honela aurkeztu digute Sarobe taldeak antzeztuko duen Miguel Oñateren izar opera. Eszena zuzendaritza: Enrique Santiago. Musika moldaketa: Zuriñe F. Gerenabarrena. Zuzendaritza musikala: Juanjo Mena eta Juanjo Ocon.

Abenduak 4, ostirala. 20:30etan.

Besaulkia-Anfiteatroak: 1.750/1.500/1.000.

Principal Antzokia (945 16 10 45)

LEHIAKETAK

Artea Unibertsitatean. Arabako Errektoreordetzak Campuseko III. Arte-Lehiaketarako deialdia egin du.

Unibertsitateko arduradunek milioi bat pezeta bideratzen dute honako lehiaketan sarituak izango diren artelanak erosteko. Abenduaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira lanak. Intesaturik bazaude pasa zaitzez ondorengo helbidetik, informazio gehiago jasotzeko:

Arabako Campuseko Errektoreordetza

Kultur Hedakuntzarako Zerbitzua

Izardui komandantea, 2.

(945 18 30 00)



NATURA

Perretxiko bila. Arabako Natur Institutuak egunotan hain modan dagoen ekintza bat burutzeko aukera eskeintzen du, Mikologia munduan sartzeko ikastaroarekin. Azaroaren 7 larunbatean izango da, egun osoz. Goizez mendiko itereara egingo da eta arratsaldean jasotako perretxikoen erakusketak. Bestalde, abenduan ANlren X. Urtemuga ospatzeko zenbait ekitaldi burutuko dira. Harri apaingarriak eta Marrazki Naturalistari buruzko erakusketak bana eta Hiltzaldi Zikloa izango dira aipagarrienak.

Arabako Natur Institutua

Pedro Asua kalea 2, 3. solairua.

Telefono eta faxa: 945 24 66 06

EL PARRAL TABERNA

azaroak 3, asteartea.

Simbium Pandora (Irun)

azaroak 10, asteartea.

Desmontables (Amurrioa)
rokanrola

azaroak 17, asteartea.

Antzerkia:

Te Atrako Teatrot aurkeztzen du:

'Mucho que decir'.

Autorea: Fer Montoya

**ekitaldi guztiak
arratsaldeko
20:00etan**

erakusketak

AMARIKA. Gure Artea 98, Eusko Jaurlaritza eta AFAko Kultura Sailek antolatua, urriaren 27tik azaroaren 15era arte izango da ikusgai Amerika Aretoan.



Bisita gidatuentzako telefonoa: 945 18 19 77.

CAMPUSA. EHUKo Arabako Campuseko Unibertsitate-Pabilioiak erakusketak ederra jasotzen du egunotan. Arabako Arte Garaikideko Museo famatuaren proposamen arkitetkonikoen maketak dira, arkitekturako ikasleek eginak. Urriaren 16tik azaroaren 11ra dago zabalik.

A.L.H.A. Andres Ferrerren argazkiak jasotzen ditu oraingotan Arabako Lurralde Historikoa-ren Agiritagiko erakustaretoak. Urriaren 21tik azaroaren 28ra bitartean izango da, Ferrerren mostra erakusgai.



e
g
m
e
n
u
a
k
o



BEIRATE ESTUDIOA


Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



NON BAIT

Opariak: ZERAMIKA, ZILARRA, POSTALAK...

KAMISETAK: BARABÚ, GREENPEACE, KOT, PERRETXIKOAK BASOAN...

Euskal oihalak

Loma jeneralaren plaza, 5 • 01005 GASTEIZ • Tlf. & faxa: 945 13 93 09

EGOERA BERRIAK PROIEKTU BERRIA BEHAR DU

Juanjo Perez / Elkarri gizarte mugimenduko kide

TA-ren su-etenak eragin duen errealitate berriaren aurrerapenik garrantzitsuenetarikoa, "euskal gatazkaz" gero eta gutxiago eta "euskal bake prozesuaz" gero eta gehiago hitz egiten dela da.

Eszenategi berri honen bilakaerak, euskal bake prozesu baten hasiera, garapena eta amaiera behar du. "Bake prozesuak" esan nahi du, indar politikoaren arteko elkarriketa demokratikoen bitartez, elkarbizitza eta autogobernuari buruzko akordioa lortzea eta 30 urtetako indarkeriazko konfrontazioari amaiera ematea. "Bake prozesuak" euskal politikaren eta euskal gizartearen aro berri bat ikusi ahal izatea eragin behar du, demokrazia gehiago eta indarkeria gabeko ezaugarriekin.

Irlandako bake prozesuak, hasieratik diseinu eta garapen argia izan zuen bezala -bederatzi hilabetetako elkarriketarik Stormonten, Ipar zein Hego Irlandan akordioaren inguruan herri kontsultak eta aldaketa legislatiboak Erresuma Batuan- "euskal bake prozesuak" ere, zalantzarik gabeko proiektua eta aurrerantzean eman beharreko urratsen diseinu argia behar du.

Orain alderdi politikoaren arteko elkarriketa prozesuaren hasiera eta amaiera zehaztea egokitzen da; zertaz hitz egin behar den, nola erabaki behar den, non hitz egin behar den, nola egokitzen den Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroa eta Espainiar Estatua bezalako errealitate politiko desberdinen arteko elkarriketa prozesua, zein bitarteko juridikorekin emango zaion erantzuna honi guztiari, etabar.

Eta hor, eta ez beste inon dago koxka. Zenbait alderdi politikok indarkeriarik gabe politikan dena eztabaidagarria dela defendatu izan dute urteetan zehar. ETA-k hiltzeari uzten zionean, posible izango zela herri hone-



tan dauden sentsibiltate desberdin guztiak, mugarik gabe, eztabaidatu eta garatu ahal izatea. ETA-k urrats garrantzitsua eman du. Hemendik aurrera ezin daiteke

aitzakiarik egon, bitarteko demokratikoak erabiliz, erakunde demokratikoen artean helburu demokratikoen inguruan eztabaidatzeko eta elkarriketa prozesu demokratikoa martxan ipintzeko.

Gure kasuan, subirotasunaren auzia, edota Euskal Herria eta Estatuaren arteko harremana, Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroa eta Iparraldearen arteko harremanak etabar, irakurketa berria behar duten arazoak dira. Eta ez indarkeriari amore emanez, baizik eta gizartearen zati garrantzitsuek egungo marko juridikoarekiko duen desadostasunagatik.

Amaitzeko hauteskunderen emaitzak direnak direla, abiapuntu beraren aurrean gaude: Euskal Herri baketsu eta normalizatu eraikitzeko erronkarekin, hain zuzen ere; gizarte osoak bere egingo duen marko politiko berezia onartzearen erronkarekin; euskal gizarteak bere harremanak Estatuarekin erabakitzea bermatuko dion erronkarekin; dramatismorik gabe, bat etortzea zabaltzearen erronkarekin; EAE, Nafarroa eta Iparraldearen arteko akordio berriaren erronkarekin. Hitz

batez, Euskal Herri anitza, mestizoa, munduari irekita, hizkuntz-anizduna, elkartasunezkoa eta giza eskubide banakoak zein kolektiboak errespetatzen diren errealitatearen eta akordio berriaren erronkarekin.

Egoera berriak atarian dugun milurteko berriari itxaropen eta alaitasun bereziarekin agur egiteko kokatu gaitu. "Euskal gatazkaren" ondorioez hitz egitea gairitu eta "euskal arazoari" konponbidea emango dion euskal bake prozesua bultzatzera zuzendu behar ditugu ahalegin guztiak; inor baztertu gabe, baina baita inolako arazo edo edukiari muzin egin gabe. /



Ardatz

itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

**PUBLIZITATERIK MERKEENA
ETA ERAGINKORRENA**

GELU
GASTEIZ

**PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53**

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Floridako altxorra !

35




adaka **M**
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

amorea Txeroki

IÑIGO SARASOLA




VITORIA GASTEIZ KID EUSKAL AYUNTAMIENTO
 DE VITORIA GASTEIZ
 BAQUE KAFE



Kafe hauek denak...
 FREXKOAK
 XIGORTU BERRIAK
 XUABEAK.....dira



Egunero herriz-herri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



BAQUE KAFE
 XUABEA



kide

APAINDURA
 Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

k

ZER NOLAKO DA NIRE ABSTENTZIOA?

Pascual Garrote Arias

ozemaile gisa eman ditudan hamalau urtetan zehar, bai errealtate sozialari erreparatzeak, bai politikoen jarrerak, bizimodua, azalpenak eta euren erabakien azterketak oraingo sistema-politikoaren partaide ez izatera bultzatu naute. Hiritarren egiazko mandatariak ikusi bezain laster bozkatu egingo dut berriro, nire askatasuna erabiliz, noski. Honako hau egunotan etxean jasotako hauteskunde- -propaganda eskutitz horietako bati erantzuna da; oraingo politikoenengan daukadan mesfidantza argitzeko asmoz ezezik, hauteskunde hauetan ez bozkatzeko jarrera defendatu nahian ere idatzitakoa, proselitista izateko asmorik gabe, jakina.

Ibarretxe Jaun estimatua:

Gaur egun gure erantzunaren zain dagoen pertsona bati edota galdera-sorta labur bati erantzuteko bost minutu hartzea zaila baldin bada, bide txarra hartu du gizadiak edo bizi garen gizarteak, behintzat. Zereginak beti dauzkagula egia da, baina jakitadedun liburu batek dioenez, bizitza honetan denak du bere garaia:

(...) Badago negar egiteko denbora eta barre egitekoa.

Badago kezatzeko astia eta dantza egitekoa.

Badago harriak botatzeko beta eta jasotzekoa (...)

Azken bolada honetan hainbat komunikabidetan hiritarren artean somatutako politikoenengan mesfidantzari buruzko iritziak entzun eta irakurri ahal izan ditugu. Nik neure mesfidantza ere oso sakona dela esan beharra daukat. Bitxia da sozioekonomiko eta kulturalki batezbesteko maila garaia duten Europako zenbait herrialdetan hiritarrek hauteskundeetan oso partehartze urria izatea. Oker al nago esaten badut gizateriak, heldu ahala, gero eta gutxiagotan behar dituela politikariak?

Nire ustez politikari baten betebeharrak nagusiena beste edozein gizakirena bezalakoa da: nahiz bere barnean nahiz besteekiko hartuemanetan pertsona gisa hobetzea, alegia. Besteak beste, hauek lirateke politikari baten betekizun garrantzitsuenak:

- Bere ongizate maila altu, soldata handi eta pribilegioei uko egitea, hirikidea hauek beraiekin batera gozatzen ez badira.

- Berak eramaten ez dituen zamak gainontzekoei ez inposatzea.

- Norberaren beharrei erantzuna ematen dieten pertsonen oztoporik ez jartzeari, zentzurik gabeko legeen bidez esate baterako.

- Bere botere-kargua ezinbestekoa izan ez dadin tinkotasunez lan egitea.

- ...

Ikusten duzunez, Ibarretxe Jauna, politikari baten eginbeharren gaineke nire iritzia eta zure ustez daukadanaren artean alde ederra dago. Begi bakoitzak bere errealtatea ikusten du! Komunikazioen iraultza gure onurarako izango da ala ez? Gero eta bizkorrago gertatzen ari diren aldagetak gizarteak aurrera emandako pausoak dira ala atzerakoak? Gure inguruan, eta gugandik urruti dauden

leku anitzetan, noski, enplegurik gabe edo pobrezian edota gorriak ikusten pertsona piloa baldin badago, non demontre dago Ongizate Estatua?

Ibarretxe Jauna, munduan zehar ongizatea zabaltzearen alde ez dagoen edota unibertetsala ez den proiektu baten kide sentitzea zaila dut. Nazionalistak ez gare-nok nahi dugun gauza bakarra da gure giza-harremanak ontzea eta sistema honen biktimak kontuan hartuz bizimodu onesta eraman; mundua hobetzen saiatzea, hain zuzen ere. Gizadiaren hiru laurdena gosez hiltzen ari den bitartean, gure gizarteak erakutsitako kontsumismo basati delako hau jasanezina da, nire aburuz behinik behin; eta Europako politikari batentzat? Egutero esnatu eta altxatutakoan eguzkiaren argiari, hiriko txori, zuhaitz eta loreei eskerrak ematen dizkiet, gure inguruan daukagun benetako urrea natura baita; baina berau aintzat hartzeko begiak ireki behar dira. Denok dugu naturaz gozatzeko eskubidea, ezta?

Azkenik, nire iritzia behar duzula zalantzan jartzekoa da. Begi-bistan dagoena da, zerbaitek eraman zaituela gutun hau idatzi eta bidaltzera. Datozen hauteskundeak, akaso?. Garrantzitsua da egun hauetan jendea ikustaraztea bere iritzia aintzat hartzeko dela? Auskalo! Nire aldetik esan nahi dut zuk bidalitako galdera-sorta erantzuteko gogorik badudala, eta beste edozein gairi buruzko nire ikuspegia jakin nahi izatekotan, badakizu, Ibarretxe Jauna, idatzi eta eskadazu.

Agurtzen zaitut, Gasteizen 1998-ko urrian.

Hauteskundeak pasatuz geroztik, esan dezaket, bozkatzaren duen hiritar zintzo bat en modura jokatu ez dudanez, nire kontzientzia lasai dagoela, egun ez bozkatzeari mandatari politikoei, euren mentalitatea eta joera aldatu asmoz, eman diezaikegun abisurik eraginkorrena dela baiteritzot. Nire ustez, gizartearen garapenaren partaide sentitzeko bozkatzeari funtsezkoa dela esatea, oraingo politikariak esan ohi duten legez, iraingarria da. Bozkatzera bultzatzen gaituen makina bat politikariak, gizartearen bestelako hainbat partehartze-adierazpen ez al ditu akaso erreprimitzen?

Gizabanakoa izatea oso prozesu sakona eta luzea da. Jaioitzatik pertsona gisa askatasuna dugu helburu eta bizi garen bitartean kontziente gara hori erdiesteko, baina bide honetan ezinbestekoa da beldurra alde batera utzi eta oso erantzule izatea. Nire bizitzaren arduraduna ni neu naizela garbi izateak edozein Estaturekiko harreman bereziak edukitzera bultzatu nau: desobedientzia zibila noizik noizera, bizimodu pertsonala eramatea, manipulazioekin arretaz ibiltzea, bide alternatiboak bilatzea eta abar. Partaidetza sozialean, nork bere eta berea!

Baina baikortasuna nire baitan izaki, amaitzeko, zera aditzera eman nahi nuke: bozkatzeari uko ez egitea egunen batean, laster, posible izatea espero dudala. Datozen hauteskundeetan apika? /



GUREA

jatetxea

Konstituzio plaza, 10
Telefonoa: 24 59 33





ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA		HELBIDEA	TFNOA.
Udaletxea	Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
	Emakumeentzako Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 13 45
	Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
	Euskara Zerbitzua	Espainia plaza, 1	16 15 22
	Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
	Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
	Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
	Prentsa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
	Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa	Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68
	Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11	16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza	San Prudentzio kalea, 30	16 13 44
	Hiri Hobekuntza	San Prudentzio kalea, 30	16 13 01
	Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30	16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
			16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra	Ariznabarra kalea, 19	13 36 91
	Hegoalde	Alberto Schommer kalea, z/g	16 18 80
	Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60
	Judimendi	Urriären Hamabiaren kalea, z/g	16 17 40
	Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
	Landatxo	Santa Maria kalea, 4	16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31
	Biltzar eta Turismo Bulegoa	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
	Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91

CASA DE CULTURA



KULTURA ETXEA

KULTURA CASA DE ETXEA

hitza kultur etxean

azaroak 10, asteartea

Folk-rock emanaldia

Mikel Telleria

azaroak 26, osteguna

Apoaren edertasuna izeneko emanaldia

Koldo Izagirre eta Joseba Tapia

abenduak 10, osteguna

Munduaren neurria

Anjel lertxundi eta Felipe Barandiaran

HERRI-IPUINARI BURUZKO TOPAKETAK

azaroak 5, osteguna

Botila bat mezuz betea

Anjel lertxundi

azaroak 6, ostirala

Helduentzako ipuin-saioa

Koldo Amestoy

ekitaldi guztiak arratsaldeko 8etan hasiko dira